

Erreforma Fiskal Ekologikoa

Euskal Herrian

Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila

- 1.zk. 2000ko Azaroa.
"Ingurugiroan Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioak Egindako Gastu eta Inbertsioen Inpaktu Ekonomikoa"
- 2.zk 2001eko Maiatza.
"2001 Ekobarometro Soziala"
- 3.zk. 2001eko Urria.
"Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan: Laburpena"
- 4.zk. 2002ko Urtarrila.
"Garapen jasangarriko Europako Batasunaren estrategia"
- 5.zk 2002ko Otsaila.
"Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Inbentarioa" (Laburpena)
- 6.zk 2002ko Apirila.
"Bizikletan, kerik gabeko hirietarantz"
- 7.zk 2002ko Maiatza.
"Euskal Autonomia Erkidegoko Beharrezko Material Guztia.BMG 2002"
- 8.zk. 2002ko Uztaila.
"Garraioa eta Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. GI 2002 Adierazleak"
9. zk. 2002ko Abuztua.
"Sustainable Development in the Basque Country"
10. zk. 2002ko Urria.
"Ingurumen Adierazleak, 2002"
- 11.zk. 2002ko Azaroa.
"Berotegi-efektua Eragiten Duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan 1990-2000"
- 12.zk. 2002ko Azaroa.
"Ingurumena eta Lehiakortasuna Enpresan"
- 13.zk. 2002ko Abendua.
"2002ko Industria Ekobarometroa"
- 14zk. 2003ko Urtarrila.
"Hiria, haurrak eta mugikortasuna."
- 15.zk. 2003ko Urtarrila.
"Klima-aldaketa"
- 16.zk. 2003ko Urtarrila.
"Jasangarritasunerako hezi. Eskolako Agenda 21: eskolarentzako gida (CEIDA)"
- 17.zk. 2003ko Otsaila.
"Europako Erkidegoaren Ingurumeneko Seigarren Ekintza Programa"
- 18.zk. 2003ko Otsaila.
"Erreforma Fiskal Ekologikoa Euskal Herrian"

© IHOBE 2003

Argitaratzailea: IHOBE, Ingurumen Jarduetarako Sozietate Publikoa

Nork egina: Socintec

Diseinua: TRUPP

Itzulpena: Elhuyar

Lege-gordailua: BI-328-03

100% paper birziklatuan inprimatua

Gure herriko Garapen Jasangariaren inguruko Eusko Jaurlaritzaren orria:

www.ingurumena.net

Erreforma Fiskal Ekologikoa Euskal Herrian





Aurkezpena

Zerga-arloan gertatzen diren aldaketak, askotan, zerga-kargaren igoeran antzematen dira. Baina ez da hori gertatzen gure Autonomia Erkidegoan 'Erreforma Fiskal Ekologikoaren' oinarriak mahaigaineratzen ditugunean. Aitzitik, eskura ditugun tresna fiskalak erabiliz, bizi-kalitatea hobetu nahi dugu, gertatzen diren aldaketek zergak puztu ez ditzaten.

Ingurumena babesteko Europan –batez ere ingurumenaren kalitatearekin konpromiso handiena duten herrialdeetan (Herbehereak eta Eskandinavia)– aplikatzen diren erreforma fiskaleko ekimenek frogatu dute, zergazko karga handitu beharrean, zerga-arloa zentzu gehiagorekin banatzen lagundu dutela; izan ere, beste aldagaiek jasaten zituzten zergak murriztu dira eta horiek ingurumenarekin zuzeneko lotura duten alderdietara eraman dira. Zerga-transferentzia horrek enpresetan eta, oro har, gizartean gutxiago poluitzen duten praktikak eta kontsumoak ekonomikoki sustatzeko, baliabide naturalak optimizatzeko eta energia alternatiboak garatzeko aukera eman du, aldi berean.

Euskal Autonomia Erkidegoak ezartzen duen zerga-autonomia aprobetxatu beharreko aukera ona da. Baliabide egokienak erabiliz, gure ingurua zaintzeko eragin positiboa lor dezakegu. 'Erreforma Fiskal Ekologikoa' ez da, berez, helburu gisa hartu behar, Garapen Jasangarriaren EAeko Ingurumen Estrategiaren (2002-2020) ikuspegi osoan beste jarduera bat baino ez da.

Dokumentu honen helburua, hain zuzen, hauxe da: ildo horretan aurrera egitea –Europako herrialdeetan funtzionatzeko eskemak aurkeztuta– eta Euskal Autonomia Erkidegoan zerga-esparruan erabil litezkeen neurri eta mekanismo praktikoak aztertzea.



Sabin Intxaurre

Eusko Jaurlaritzako
Lurralde Antolamendu eta
Ingurumen Sailburua

Edukien aurkibidea

Hitzaurrea

1. Kapitulua: Baliabide Fiskal Berdeak EB-N eta Elge-ko Herrialdeetan

1. Aurrekariak	9
2. Ingurumen-zergak erabiltzeko arrazoiak	9
3. Oztopo sozial, ekonomiko eta politikoak	9
4. EB/ELGEko herrialdeetan indarrean dauden ingurumen-zergak eta -kargak	10
4.1. Poluitzaileak isurtzearen gaineko zerga	10
4.1.1. Atmosferaren poluzioa	10
4.1.2. Uraren poluzioa	10
4.1.3. Hondakin solidoak	11
4.1.4. Hondakin Arriskutsuak	12
4.1.5. Zarata	12
4.2. Baliabideak erabiltzearen gaineko zergak	13
4.2.1. Baliabideak erauztearen gaineko zergak	13
4.2.2. Uraren gaineko kargak	13
4.2.3. Hiri-hondakin solidoak biltzearen eta tratatzearen gaineko tasak	13
4.3. Inputs/outputs-en gaineko zergak	14
4.3.1. Motor-erregaiak	14
4.3.2. Beste produktu energetiko batzuk	14
4.3.3. Ibilgailuak	15
4.3.4. Nekazaritzako sargaiak	16
4.3.5. Beste produktu batzuk	16
4.4. Bitarteko fiskal berdeen beste adibide batzuk	17
4.4.1. Errepideak/autobideak erabiltzearen gaineko tasak	17
4.4.2. Turismoaren gaineko tasak	17
5. Erreforma Fiskal 'Berdeak' Europan	17

2. Kapitulua: EAE-ko eta espainiar estatuko zerga-sistemen diagnostikoa

1. Sarrera	19
2. Zerga-sistema Espainian	19

3. Zerga-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan	21
4. Ingurumenean eragina duten zergak espainiar estatuan	21
4.1. Estatu mailan	21
4.1.1. Motor-erregaien gainekoak	21
4.1.2. Beste produktu energetiko batzuen gaineko	22
4.1.3. Ibilgailuen gainekoa	22
4.1.4. Nekazaritzako sargaien gainekoa	22
4.1.5. Beste produktu batzuen gainekoa	22
4.2. Autonomia erkidego mailan	22
4.2.1. Atmosferaren poluzioaren gaineko zerga	22
4.2.2. Ingurumeneko beste zerga batzuk	23
4.2.3. Urari lotutako zergak	23
4.3. Udal mailan	23

3. Kapitulua: Etorkizunerako orientazioa eta gomendioak

1. EAEko Erreforma Fiskal Ekologikoaren dekalogoak	25
2. Etorkizuneko ildoak	28
2.1. Sarrera	28
2.2. Egingarritasun handia, lehiakortasunean eragin txikia eta ingurumenean eragin handia duten neurriak	29
2.3. Beste zenbait neurri interesgarri, baina aplikatzeko horren errazak edo horren eraginkorak ez direnak	30
2.4. Koordinazioa eta hurrengo urratsak	30

Bibliografia	31
--------------	----

Taulen aurkibidea

1. taula – Atmosferaren poluzioaren gaineko zergak	10
2. taula – Uraren poluzioaren gaineko zergak	11
3 taula – Hondakin solidoak isurtzearen gaineko zerga	11
4 taula – Hondakin arriskutsuak sortzearen gaineko zerga	12
5 taula – Aire-zirkulazioari lotutako zarataren gaineko ordainarazpenak	12
6 taula – Garraio-sektorearekin eta energia-sektorearekin lotutako zergak, Europako herrialde batzuetan	13
7 taula –Ingurumenari lotutako hainbat abantaila fiskal (salbuespenak eta kenketak), beste herrialde batzuetan aplikatutakoak	18
8 taula – Estatu mailako zergak	20
9 taula – Autonomia Erkidegoen zergak	20
10 taula – Urari lotutako zergak dituzten autonomia erkidegoak	23
11 taula – Urari lotutako zergak	23

Eranskinak

I. Eranskina	33
Erreforma Fiskal Berdeak Europan	
II. Eranskina	35
Ingurumenari lotutako Zergak Estatuan	
III. Eranskina	39
EAEen Zerga Erreforma Ekologikoa Egiteko Iradokizunak	



Gauzatzearen laburpena

Gauzatzearen laburpena

Laneko dokumentu honek hainbat iradokizun, gako eta irizpide proposatzen ditu EAEn Erreforma Fiskal Berdea martxan jartzeko. Horretarako, lehenik, gai honetan aurreratuen dauden Europako eta ELGEko herrialdeetako funtzionamendu-eskemak berrikusi dira, eta, ondoren, EAEn eta euskal zerga-sisteman dauden zergak aztertu. Azkenik, hainbat adituri kontsulta egin zaio, Erreforma Fiskal Berdea egiteko garaian kontuan hartu beharko diren orientazio, irizpide, mekanismo eta neurri praktikoak jasotzeko.

Hainbat arrazoi daude ingurumen-zergak erabiltzeko, eta arrazoi horiek garapen ekonomiko jasangarriaren abantaila nabarmenetan oinarritzen dira; ingurumen-zergen sistema egokia ezartzeko gainditu beharreko oztopo sozial, ekonomiko eta politikoak ere badaude ordea. Hala ere, ingurumen-zergak eta -kargak EB/ELGEko herrialdeetan erabat zabaldua dauden ingurumen-politikako bitartekoak dira:

- Poluitzaileak isurtzearen gaineko zergak: atmosferaren poluzioa, uraren poluzioa, hondakin solidoak, hondakin arriskutsuak eta zarata.
- Baliabideak erabiltzearen gaineko zergak: baliabide naturalak ateratzea, uraren gaineko kargak eta Hiri Hondakin Solidoak jasotzea eta tratatzea.
- Inputs/outputs-en gaineko zergak: energiaren sektorearekin (ibilgailuak, erregaiak eta beste produktu energetiko batzuk), nekazaritzarekin (nekazaritzako sargaiak) eta ozono-geruzari kalte egiten dioten gai kimikoekin lotuta.
- Beste zenbait; esate baterako, bide-azpiegiturak erabiltzeko tasak edo turismoaren gainekoak.



90eko hamarkadaren hasieratik, Europako herrialde asko hasi dira Erreforma Fiskal Berdeari heldu eta bitarteko horiek kontuan hartzen. Kasu gehienetan, guztizko karga fiskal konstanteari eutsiz gauzatu da (neutraltasun fiskala). Baina, hala ere, ingurumen-zerga (Europako Batzordeak horren aldeko apustu garbia egin arren) ez da hain komuna, ez espainiar estatuan, ez Euskal Autonomia Erkidegoan.

Europar eta estatuan egiten den zerga berdeen azterketak EAren kasuan aplikatu daitezkeen hainbat neurri eta bitarteko iradokitzen ditu:

- Erreformara orientatutako aukerak eta printzipioak ezartzea: neutraltasun fiskala, lortutako diru-sarreraren birbanaketa, "poluitzen duenak ordaintzen du" printzipioaren aplikazioa eta dibidendu bikoitza (ingurumen-hobekuntza eta bilketa desitxuratzeko-zergak gutxitzeko erabiltzea).
- Zergak ingurumena gehiago kontserbatzeko erabiltzea eta sozietateen zergari, PFEZ eta beste zerga batzuen inguruko neurriak eta bitartekoak iradokitzea.
- Zerga berriak sortzea, legeak horretarako aukera ematen duenean: urari, atmosferaren poluzioari, hondakinen sorrerari, ingurumenari eragiten dioten instalazioei, baliabideak erazteari eta beste zenbait lotutako zergak.
- Estatuari iradokizunak egitea, arau fiskalaren arabera EAEk esku hartzerik ez duen kasuetan: aldaketak BEZe, Gizarte Segurantzari egiten zaizkio kontribuzioetan eta zerga berezietan (hidrokarburoak, tabakoa, alkohola, elektrizitatea, matrikulazioa).



Hurrengo pausoa sailak eta erakundeak koordinatuko dituen lan-talde iraunkorra egituratzea izan behar du, Erreformaren oinarri izango diren printzipioak eta helburuak argi definitzeko, bitarteko egokienak identifikatzeko eta martxan jarri nahi diren neurrien ingurumen- eta ekonomia-inpaktuak aztertzeko. Neurri horiek bitartekoen etorkizuneko ebaluazioetan pentsatuta diseinatu behar dira. Gainera, Europako Ingurumen Agentziaren gomendioak kontuan hartuta, bitarteko fiskalen sorrera garaiz eta era efektiboan iragarri beharko litzateke.

Euskadin Erreforma Fiskal Berdea ez da helburu gisa hartu behar, baizik eta ikuspegi integraletik herrialdearen ingurumen-politikari laguntzeko jarduerak gisa.

HITZAURREA

Bitarteko fiskalak herrialde askotan aplikatu dira, ingurumena zaintzen eta babesten laguntzeko. Horretarako, kontsumo- eta ekoizpen-jarraibideak aldatzera bultzatu dituzte eragileak. EAEn oraindik egiteko asko dago gai honetan, eta, autonomia fiskala duenez, aukera bikaina du Europar ingurumen-politiken buruan jartzeko. Horixe da dokumentu honetan aztertuko dena, honela egituratuta:

Lehen kapitulua EBko herrialdeetan gauzatzen ari diren ekimenei buruzkoa da, eta beste herrialdeetan dauden ingurumen-zergak aztertzen ditu bereziki. Horien barruan, **poluitzaileak isurtzearen** (atmosferaren poluzioa, ura, hondakin solidoak, hondakin arriskutsuak eta zarata), **baliabideak erabiltzearen** (baliabideak ateratzea, ura, hiri-hondakin solidoen bilketa eta tratamendua) eta **inputs** eta **outputs-en** (motor-erregaiak, beste produktu energetiko batzuk, ibilgailuak, nekazaritzako sargaiak eta beste zenbait) gaineko zergak sartzen dira. Horrez gain, Europako hainbat herrialdeetan gauzatutako **Erreforma Fiskal Berdeen** laburpena ere sartzen da kapitulu honetan; Europako herrialde horien helburu nagusia ingurumen-zerga berriak sartzea da, beste sail batzuetako zergazko karga gutxitzeko.

Bigarren kapituluan Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua jasotzen da. Azterketa hiru eremu fiskalen aurkezpenarekin (estatu, autonomia eta udalerrria) eta EAeko zerga-sistemaren ezaugarriekin hasten da. Azken ataletan zuzenean edo zeharka ingurumenean eragiten duten zergak deskribatzen dira (estatu, autonomia erkidego eta udalerrri mailan).

Hirugarren eta azken kapituluan Erreforma Fiskal Berdearen oinarri izango diren alderdi nagusiak aipatzen dira, dekalogo moduan laburtuta. Aurrez egindako eta aurreko kapituluetan azaldutako ikerketen ondorio gisa ateratako alderdi nagusiak dira. Gainera, Erreforma Fiskal Berde eragingarria lortzeko eman beharreko hurrengo pausoen gidari izan beharko luketen azken orientazioak aipatzen dira. Zati horretan, egingarritasunaren arabera aplikatzeko neurri interesgarrienak, lehiakortasun- eta ingurumen-inpaktua eta prozesua martxan jartzeko hainbat irizpide eta aholku ere jasotzen dira.



1 KAPITULUA:

BALIABIDE FISKAL BERDEAK EB-N ETA ELGE-KO HERRIALDEETAN

1. Aurrekariak

70eko eta 80ko hamarkadetan, EB/ELGEko herrialdeetako ingurumen-politika isurpen-mailak, ekoizpen-prozesuak eta teknologia zuzenean arautzean oinarritzen bazen, 90eko hamarkadaren hasieratik geroz eta gehiago erabili dira bitarteko ekonomikoak, eta ingurumen-zergak izan dira gehien ugaritu direnak. Eurostat-ek jasotako datuen arabera (2000), Europako Batasunean ingurumen-zergekin jasotako kopurua % 28 hazi da 1980 eta 1997 artean (Barne Produktu Gordinaren ehuneko gisa emana).

Horrela, ingurumen-zergek garrantzi nahiko xumea dute jarduera ekonomikoaren eskalarekin alderatuta. ELGEk eta Europako Batasunak batera duten ingurumen-zergei buruzko datu-basean jasota dagoenaren arabera, ingurumen-zergetatik datozen diru-sarrerak Barne Produktu Gordinaren % 2ren ingurukoak dira ELGEko herrialdeetan, eta guztira zergekin jasotakoaren % 7-8ren ingurukoak dira. Bestetik, garraioaren sektoreak beste sektore eta eragile batzuei Europako Batasunean (EBko 15, Norvegia eta Suitza) sortzen dizkien ingurumen-gastuen inguruan egin berri diren kalkuluen arabera, kanpoko kostu horiek Barne Produktu Gordinaren % 7koak dira (INFRAS/IWW, 2000). Horrek esan nahi du, azken hamarkadetan ingurumen-zergetan aurrerapenak egin diren arren, oraindik tarte handia dagoela horiek erabiltzeko.

Kapitulu honetan, EBN eta ELGEko herrialde batzuetan ezarritako ingurumen-zergen ikuspegi osoa eskaintzen da. Sarrera labor honen ondoren, zergak geroz eta gehiago zergatik erabiltzen diren azaltzen da 2. atalean. 3. atalean, ezartzea gehien zailtzen duten oztopo ekonomiko, sozial eta politiko nagusiak labor aipatzen dira, eta, 4. atalean, EB/ELGEN ingurumen-zergen aplikazioa eta eraginkortasuna berrikusten da. Azkenik, 5. atalean Europako ingurumen-politikan liderrak diren herrialdeetan martxan jarritako erreforma fiskal berdeak deskribatzen dira.

2. Ingurumen-zergak erabiltzeko arrazoiak

Ingurumen-politikan zergak erabiltzeko arrazoi nagusiak bost dira:

- 1. Kanpoko kostuak** ekoiztako ondasun eta zerbitzuen prezioetan sartzeko (barneratzeko) aukera ematen dute.
- 2. “Kutsatzen duenak ordaintzen du”** printzipioa aplikatzeko aukera erraztu egiten dute.
- 3.** Kontsumitzaileek eta ekoizleek beren **kontsumoko eta ekoizteko jarraibideak** ingurumena gehiago errespetatzen duten jardueretara aldatzeko pizgarriak ematen dituzte.
- 4. Ingurumen-hobekuntza espezifikoie aurre egiteko** (“earmarking”), oro har gastu publikoa finantzatzeko eta soldata-errenten gaineko presio fiskala eta kapitala murrizteko erabil daitezkeen diru-sarrera fiskalak sortzen dituzte.
- 5. Bereziki bitarteko politiko eraginkorrak** izan daitezke zabaltzen diren poluzio-iturriei –adibidez, prestiziden eta ongarrrien erabilerari lotutako poluzioari– lotutako ingurumen-arazoei aurre egiteko.

3. Oztopo sozial, ekonomiko eta politikoak

Ingurumen-zergak gehiago erabiltzea zailtzen duten **oztopo ekonomiko** nagusiak lau dira:

- 1.** Zerga batzuek hainbat enpresatan epe motzera eragin ditzaketen **finantza-kostuak**.
- 2. Nazioarteko lehiakortasunean** eta, ondorioz, enpleguan izan dezaketen eragina.
- 3.** Ekoizleen eta kontsumitzaileen jokaera-arauak alda ditzaten eragiteko zergak “gehiegizkoak” izan behar duten **ustea**.
- 4. Inflazio-tasan** izan dezaketen eragina.

Bestetik, ikuspegi **sozialetik** ingurumen-zergen aurka planteatzen ari diren eragozpen nagusiak horiek errenten banaketan izan dezaketen eraginarekin zerikusia du. Produktuen gaineko zergetan, oro har, **kaltetuenak errenta baxuko taldeetan dauden gizabanakoak izango direla** ikusten dugu. Gainera, ingurumen-zergekin bildutako diru-sarrerak egitura progresiboarekin diseinatutako zergak

¹ Ingurumen-zergak: ingurumen-hobekuntza sor dezaketen zergak dira, hau da, energiaren, garraioaren eta poluzioaren eta baliabide naturalen erabileraren gaineko zergak.

² Datu-base horretara elektronikoki sar daiteke, honako helbide honetatik: www.oecd.org/env/policies/taxes/index.htm

³ Azterketa honetan ez dira kontuan hartu kenkari fiskalak, salbuespenak eta subsidioak. Lehen biak herrialde bakoitzeko erregimen fiskaleko berezitasunak direlako, eta zergak ere bai kasu batzuetan. Subsidioak ez dira kontuan hartu, geroz eta gutxiago erabiltzen direlako eta oro har asko kritikatzeko dituztelako.

(adibidez, kapital-errenta edo pertsona fisikoen gainea) murrizteko erabiltzen badira, errenta baxuko taldeetan izandako eragin negatiboa handiagoa izango da.

Azkenik, ikuspuntu **politiko/fiskaletik**, hiru oztopo hauek nabarmendu behar ditugu:

1. Mendebaldeko ekonomia gehienetan gaur egungo joera zergazko karga murriztea izatea.
2. Zerga-sistema bat ezartzeak ekartzen duen **kostu administratiboa**; izan ere, litekeena da sortutako etekinek kostua ez konpentsatzea.
3. Erreforma fiskalak egiteko herriko, eskualdeko eta estatuko administrazioek **legearen aldetik** izaten dituzten **trabak**.

4. EB/ELGEko herrialdeetan indarrean dau den ingurumen-zergak eta -kargak⁴

Ingurumen-zergak eta -kargak EB/ELGEko herrialdeetan erabat zabaldua dauden ingurumen-politikako bitartekoak dira.

Ondoren, EB/ELGEko herrialdeetan indarrean dauden zerga eta karga nagusiak aipatzen dira, honako kategoria hauetan sailkatuta:

1. Poluitzaileak isurtzearen gaineko zergak
2. Baliabideak erabiltzearen gaineko zergak
3. Inputs/outputs-en gaineko zergak

4.1. Poluitzaileak isurtzearen gaineko zerga

4.1.1 Atmosferaren poluzioa

Herrialde gehienek produktuen gaineko zergen bidez zergapetzen dute atmosferaren poluzioa (erregaien karbonoaren eta sulfuroaren edukia kontuan hartuta). Zerga horiek 4.3.1 eta 4.3.2 sailetan aztertzen dira. Sail honetan **1. taulan** laburtutako isurpenen gaineko zergak aipatzen dira.

Suediarena da kasurik deigarriena; izan ere, 1992tik zergapetzen du erregai-planta handien NOx isurpena. Sistema honen ezaugarria da sistema bultzatzaile hutsa dela, hau da, sarrerak instalazioei itzultzen zaizkie, energiaren guztizko ekoizpenean duten parte-hartzearen arabera. Beraz, erregai-instalazioentzat oso onuragarria

da sortutako energia-unitate bakoitzeko NOx isurpenak murriztea. Suediako Ingurumena Babesteko Agentziak kalkulatu duenaren arabera, 1992-1999 artean, sortutako MWh bakoitzeko NOx kopurua 0.41 Kg izatetik 0.26 Kg izatera pasatu zen.

Gainerako herrialdeetan aplikatutako atmosferaren poluzioaren gaineko zergen helburu nagusia zerbitzu-motaren bat finantzatzea da.

1. taula

ATMOSFERAREN POLUZIOAREN GAINEKO ZERGAK		
Herrialdea	Zerga-oinarria	Bildutakoaren helmuga
Korea	Poluitzaile jakin batzuen gaineko mugak gäinditzea, eraikin handien eta diesel ibilgailuen jabetza	Ingurumen Ministerioa eta tokiko gobernuak
Espainia (Galizia)	SO ₂ eta NO _x	Autonomia Erkidegoko Gobernuak
Estatu Batuak	Isurtzeko baimena behar duten gaiak	Isurpen-baimenen sistema finantzatzea
Frantzia (5)	SO ₂ , NO _x , VOC _s eta HC	Ingurumen Agentzia
Italia	SO ₂ eta NO _x	
Txekiar Errepublika	Partikulak, SO ₂ , NO _x , CO, VOC _s , gai toxikoak	Ingurumenaren zaintza finantzatzeko Estatuko Ingurumen Funtsa
Suedia	NO _x	Bilketa erregai-instalazioei itzultzen zaie
Suitza	Hegazkinen lurreratzea	Aireportuen inguruko poluzioaren aurkako neurriak finantzatzea
Turkia	Motordun ibilgailuak eta hegazkinak	Ingurumenaren Poluzioa Prebenitzeko Funtsa

4.1.2. Uraren poluzioa

Uraren poluzioaren gaineko zergen helburu nagusia uraren kalitatea zaintzeko eta hobetzeko neurriak finantzatzea da (arazketa-ekipoak instalatzeko diru-laguntzak eta zerga-salbuespenak barne). Hala ere, kasu batzuetan (adibidez, Flandesen eta Herbehereetan), industria-efluenteen gaineko zergak hain dira altuak industriek isurpenak murriztea sustatzeko eta eragiteko baliabide gisa erabiltzen baitira.

⁴ Sail honetan erabilitako informazio-iturri nagusiak honako hauek dira: EIA(2000), OECD(1999, 2001) eta US EPA (2001).

⁵ Frantzian, 1985ean sartu zen airea poluitzearen gaineko zerga 'parafiskala'. 1990etik, erregai-instalazio handietako, errausketa-instalazioetako eta urteko 150 tona baino gehiago isurtzen zituzten instalazioetako SO₂, NO_x eta KOLei aplikatzen zitzairen. Hala ere, 1998an 'jarduera poluitzaileen gaineko zerga orokorra' (TAGP) sortu zen, eta 1999an airera egindako SO₂, NO_x, KOL eta Hcen isurpenak sartu ziren, baita lubrifikatzaileen erabilera, aire-garraioari lotutako zarata, udal-hondakinen sorrera eta industria-hondakin berezien tratamendua eta biltegitratzea ere.

2. taulan EB/ELGEko herrialdeetan indarrean dauden uraren poluzioaren gaineko zergen ezaugarri nagusiak laburtzen dira.

4.1.3. Hondakin solidoak

Hondakindegietako zergek edo tasek bi helburu dituzte horiek aplikatzen dituzten ELGEko herrialde gehienetan: (1) lurzoru poluituak identifikatzeko eta berreskuratzeko jarduerak eta antzeko beste hainbat jarduera finantzatzeko funtsak biltzea eta (2) hondakin-fluxuen zati bat errausteko

desbideratzea (hondakina baino aukera hobetzat jotzen da). Erresuma Batuan aplikatzen den hondakinen gaineko zergaren kasuan, orain dela gutxi egindako azterketa baten arabera (UK DETR, 1999), zergak asko igo beharko lirateke (tona bakoitzeko 11 liberatik -18 €- , 2000ko tasa, tona bakoitzeko 30 liberara igo -49 €- geldoak ez diren baliabideen kasuan), zerga horrek ondorio nabarmena izan dezan hondakin-fluxuetan.

3. taulan EB/ELGEko herrialdeetan indarrean dauden hondakin solidoak isurtzearen (sortzearen) gaineko zergen ezaugarri nagusiak laburtzen dira.

2. taula

URAREN POLUZIOAREN GAINEKO ZERGAK		
Herrialdea	Zerga-oinarria	Bildutakoaren helmuga
Alemania	Karga poluitzailea	Uraren kalitatea zaintzeko eta hobetzeko neurriak finantzatzeko erabiltzen da
Australia	Bolumena, gazitasun-faktorea, poluitzaile-mota, inpaktu-eremua	Administrazioko gastuak eta jarduera poluitzaileak kontrolatzeko gastuak estaltzeko erabiltzen da
Belgika (Flandes)	Poluzioaren kantitatea eta kalitatea	Oro har, ingurumen-politika finantzatzeko erabiltzen da
Kanada (Quebec)	Hainbat poluitzailearen urteko kantitatea	Gobernuko Ingurumen Funtsak
Korea	Hainbat muga onargarri gainditzen dituen poluzioa	Ingurumen Ministerioa
Estatu Batuak	Iturri-motaren, bolumenaren eta ur-efluentearen toxikotasunaren arabera tarifa laua	Uraren kudeaketaz arduratzen diren estatu-agentzien programak finantzatzea
Frantzia	Etxeetatik eta industrietatik deskargatutako poluitzaileen bolumena	Uraren kudeaketaz arduratzen diren tokiko agentziak
Herbehereak	Industria-efluenteak	Uraren kudeaketaz arduratzen diren estatuko eta eskualdeko agentziak
Mexiko	COD eta TSSen edukien mugak gainditzen dituzten hondakin-uren kantitatea	Gobernua
Polonia	BOD, COD, esekitako solidoak, kloruroa, sulfatoa, metal astunak eta gai lurrunkorrak	Ingurumena babesteko eta ura kudeatzeko nazioko, lurraldeetako eta herrietako funtsak
Txekiar Errepublika	BODen bolumenak, gai oleaginosoak, gai alkalino eta azidoak eta hainbat muga gainditzen dituzten disolbatutako gatz ez-organikoak	Estatuko Ingurumen Funtsa

3. taula

HONDAKIN SOLIDOAK ISURTZEAREN GAINEKO ZERGA		
Herrialdea	Zerga-oinarria	Bildutakoaren helmuga
Austria	Hondakin solidoen isurpena	Lurzoru poluituak identifikatzeko eta berreskuratzeko erabiltzen da
Estatu Batuak	Hondakin solidoen isurpena	Estatu bakoitzeko hondakin solidoak kontrolatzeko jarduerak finantzatzeko erabiltzen da
Herbehereak	Hondakin solidoen isurpena	--
Italia	Hondakin solidoen isurpena	--
Erresuma Batua	Hondakin solidoen isurpena	Enpresek gizarte-segurantzari egin beharreko ekarpena murrizteko erabiltzen da
Txekiar Errepublika	Hondakin solidoen isurpena	Zati bat hondakindegia dituzten udal-administrazioei konpentsatzeko erabiltzen da; gainerakoa Estatuaren Ingurumen Funtsan sartzen da
Suedia	Hondakin solidoen isurpena	--
Suitza	Hondakin solidoen isurpena	Lurzoru poluituak berreskuratzeko erabiltzen da

4.1.4. Hondakin Arriskutsuak

Hondakin arriskutsuen gaineko karga-sisteman, **Danimarkan, Islandian** eta **Estatu Batuetan**, tratamendua, birziklatzea, suntsiketa, garbiketa eta hondakinei lotutako beste hainbat jarduera finantzatzeko erabiltzen da jasotakoa. **Finlandian**, hondakin arriskutsuak Estatuarena, udal-administrazioena eta enpresena den enpresa batek prozesatzen ditu, eta zergekin bildutakoa enpresa hori finantzatzeko erabiltzen da.

4. taulan EB/ELGEko herrialdeetan indarrean dauden hondakin arriskutsuak sortzearen gaineko zergen ezaugarri nagusiak laburtzen dira. **Bi salbuespenak Alemania** eta **Frantzia** dira. **Alemanian** kasuan, 90eko hamarkadaren erdialdera l nder batzuetan hondakinak (arriskutsuak eta arruntak) sortzearen eta lurpeko urak ateratzearen gaineko zergak jarri ziren indarrean. Hala ere, enpresa batzuek auzitegietara jo zuten, eta zerga horiek aplikatzearen aurkako epaia eman zen. **Frantzian**, orrialdearen behealdeko bigarren oharrean aipatzen den bezala, 1999an hondakin berezien tratamendua eta biltegitratzea ‘jarduera poluitzaileen gaineko zerga orokor’ berriaren barruan sartu zen (TGAP).

4. taula

HONDAKIN ARRISKUTSUAK SORTZEAREN GAINEKO ZERGA		
Herrialdea	Zerga-oinarria	Bildutakoaren helmuga
Danimarka	Hondakin arriskutsuak	Bilketa, tratamendua eta birziklatzea finantzatzeko erabiltzen da
Estatu Batuak	Hondakin arriskutsuak	Hondakin toxikoak garbitzeko eta horiek kontrolatzeko jardueretarako erabiltzen da
Finlandia	Hondakin arriskutsuak	Hondakin horiek prozesatzeaz arduratzen den konpainiari ematen zaio jasotakoa. Konpainia estatuarena, udal-administrazioena eta industriarena da
Islandia	Gai toxikoak	Gai toxikoen bilketa, tratamendua, birziklatzea eta suntsiketa finantzatzeko erabiltzen da
Txekiar Errepublika	Hondakin arriskutsuak	Zati bat hondakindegia dituzten udal-administrazioei konpentsatzeko erabiltzen da; gainerakoa Estatuaren Ingurumen Funtsean sartzen da

5. taula

AIRE-ZIRKULAZIOARI LOTUTAKO ZARATAREN GAINEKO ORDAINARAZPENAK		
Herrialdea	Zerga-oinarria	Bildutakoaren helmuga
Alemania	Lurreratzeak	--
Australia	Lurreratzeak	Aireportuen inguruko etxeak intsonorizatzeko programen kostuak berreskuratzeko erabiltzen dira
Italia	Lurreratzeak	Eskualdeetako ingurumen-agintariak zarata-poluzioak kaltetutako eragileak konpentsatzeko erabiltzen dute bildutakoa
Japonia	Lurreratzeak	--
Norvegia	Lurreratzeak	Aire-zirkulazioaren zarataren inpaktua gutxitzeko neurriak finantzatzeko erabiltzen dituzte aireportuetako agintariak
Suitza	Lurreratzeak	Aireportuko mantentze-lanen zerbitzuak eta gastuak finantzatzeko erabiltzen dira
Turkia	Hegazkinak	Zergarekin bildutakoa Ingurumenaren Poluzioa Prebenitzeko Funtsean sartzen da

4.1.5 Zarata

Aire-zirkulazioari lotutako zaratari dagokionez, **Australiak, Italiak** eta **Suitzak** lurreratzearen gaineko kargak dituzte, eta horiek zarata-mailaren arabekoak dira. **Australian, Norwegian** eta **Suitzan** aire-zirkulazioaren zarataren inpaktua gutxitzeko neurriak finantzatzeko erabiltzen dituzte aireportuetako agintariak. Italian, aire-zirkulazioaren zaratak kaltetutako hiritarrak eta udalak konpentsatzeko erabiltzen dute zergekin bildutakoa eskualdeetako gobernuek. **Turkian** agintariak bidaiatzearen prezioaren % 5eko zerga ezarri zuten (1997an aplikatutako tasa), bai eta garraiatutako ondasunen tona bakoitzeko aurrez finkatutako tasa ere. Horrekin jasotakoa Ingurumenaren Poluzioa Prebenitzeko Funtsean sartzen dute.

5. taulan, EB/ELGEko herrialdeetako aire-zirkulazioaren zarataren gaineko ordainarazpen nagusiak biltzen dira.

4.2 Baliabideak erabiltzearen gaineko zergak

4.2.1. Baliabideak erauztearen gaineko zergak

Herbehereetan lurpeko urak ateratzearen gaineko zerga ordaindu behar izaten dute edateko uraren zerbitzua ematen duten konpainiek (0.16 euro metro kubiko bakoitzeko) eta beste hainbat konpainiak (0.12 euro metro kubiko bakoitzeko).

Finlandian eta **Suedian** legarra ateratzearen gaineko zerga bat dago, eta, **Erresuma Batuan**, 2002. urterako, harrobietako agregakin minerala ateratzearen gaineko zerga ezartzeko asmoa dute. **Danimarkan**, hainbat lehengairen –adibidez, legarren eta kareharriaren– gaineko zerga bat dago, eta **Danimarkan** ateratako lehengaiei edo inportatutakoei aplikatzen zaie.

Estatu Batuetako estatu batzuetan, ikatza, petrolioia eta gas naturala ateratzearen gaineko zergak daude.

4.2.2. Uraren gaineko kargak

Uraren gaineko kargak oso zabaldua daude EB/ELGEko herrialdeetan. **Austrian**, **Belgikan** (Flandes), **Danimarkan** eta **Frantzia** kontsumitutako ur-kantitatearen gaineko kargak ezartzen dira. Kasu batzuetan, **Estatu Batuetan**, **Finlandian**, **Polonian** eta **Suedian** ere gauza bera gertatzen da. Hala ere, herrialde horiek isuritako hondakin-uren bolumenaren arabera kargak ezartzen dituzte, baldin eta iturriak industrialak badira. **Kanadan** (Quebec), **Grezian**, **Italian**, **Txekiar Errepublikan** eta **Turkian** ere isuritako hondakin-uren bolumenaren arabera ezartzen dira kargak. Azkenik, Norvegiar familia-unitatearen tamainan oinarritutako tarifa lau aplikatzen da.

4.2.3 Hiri-hondakin solidoak biltzearen eta tratatzearen gaineko tasak

Hiri-hondakin solidoak biltzearen eta tratatzearen gaineko tasak era desberdinean kalkulatu dira. EB/ELGEko herrialde gehienetan **tarifa laua** aplikatzen dira, eta

6. taula

GARRAIO SEKTOREAREKIN ETA ENERGIA SEKTOREAREKIN LOTUTAKO ZERGAK, EUROPAKO HERRIALDE BATZUETAN

Herrialdea	Energia	Garraioa
Alemania	1999an erregaien eta elektrizitatearen gaineko zergak igotzeko politika jarri zen martxan	Motordun ibilgailuen gaineko zergak isurpenen ezaugarrien arabera dira
Danimarka	Energiaren gaineko zergetan aplikatzen diren tasak Europako altuenak dira Industria-sektorearen kasuan, energiaren gaineko zergekin jasotakoa sektoreari itzultzen zaio CO ₂ -aren gaineko zerga 1992an ezarri zen eta 1996an berrikusi zen; energia aurrezteko sistemetan inbertitzen duten enpresek tasa murriztuak izaten dituzte	Ibilgailuen matrikulazio-tasak Europako altuenak dira Ibilgailuen zirkulazioaren gaineko urteko zergaren zenbatekoaren eta ibilgailuen eraginkortasun energetikoaren arteko harremana alderantzizkoa da
Finlandia	CO ₂ -aren gaineko zerga 1990ean ezarri zen	
Frantzia	Energia/CO ₂ -aren gaineko zerga 2001ean ezarri zen	
Herbehereak	Energiaren gaineko zergak geroz eta garrantzi gehiago du Nazioartean konpetentzia handia duten sektoreei murrizketak eta salbuespenak aplikatzen zaizkie	Energetikoki eraginkorrak diren ibilgailuei murriztutako tasak dituzten zergak aplikatzen zaizkie
Norvegia	Energia/CO ₂ -aren gaineko zerga aplikatzeko eremua zabaldu egin da orain dela gutxi Sufrearen gaineko zerga bat badago, eta 2000. urtean tasak bikoizteko asmoa zegoela iragarri zen	
Suedia	Energia/CO ₂ -aren gaineko zerga 1991etik aplikatzen da Sufre-maila gutxiko erregaientzat tasa murriztuak daude	
Erresuma Batua	2001ean "klima-aldaketaren gaineko zerga" ezarri zen Sufre-maila gutxiko gasolioarentzat tasa murriztuak daude	Energetikoki eraginkorrak diren ibilgailuentzat tasa murriztuak daude

tarifa horiek erabiltzaile-motaren, hondakin-bolumenaren edo, **Turkiaren** kasuan bezala, eraikin-motaren arabera izaten dira. **Finlandian** hiri-hondakinen kudeaketa eta, beraz, tasekin jasotako diru-sarrerak konpainia pribatuen esku geratzen dira.

4.3. Inputs/outputs-en gaineko zergak

Garraio sektorearekin eta energia sektorearekin lotutako zergak, Europako herrialde batzuetan

4.3.1. Motor-erregaiak

Motor-erregaien gaineko zergak EB/ELGEko herrialde gehienetan aplikatzen dituzte. Izaera fiskalarekin diseinatutako zergak (**zerga-biltzaileak**) dira, baina egia da ingurumen-inpaktua gutxitzeko beharrezko pizgarriak sor ditzaketela. Motor-erregaien gaineko zergek garestitu egiten dute garraioa, eta motor-erregaiak aplikatutako zergazko tasen eta ibilgailu pribatuen erabileraren artean alderantzizko harremana dagoela pentsa liteke. Hala ere, badirudi hori ez dela horrela. Adibide gisa **Erresuma Batua** aipatuko dugu. Herrialde horretan, **Europako Batasuneko** gainerako herrialdeekin alderatuta, berunik gabeko gasolinaren eta gasolioaren gaineko zergarik altuenak dituzte, eta, hala ere, bidaiarien lurreko garraioan auto-proporzio oso altua du (1997an % 87.7).

Europako herrialde askotan, **zerga desberdinak** aplikatzen zaizkie berunik ez duten eta beruna duten gasolinetan (berez, hori nahitaezkoa da EBko herrialdeetan). Berunik gabeko gasolinaren erabilera zabaltzeko lanetan emaitza oso ona eman du horrek.

Herrialde batzuetan, nahiko 'garbitzat' jotzen diren beste motor-erregai batzuei ere zergazko tasa oso baxuak aplikatu zaizkie. Sufre gutxiko gasolioaren kasua da hori; zergazko tasa horien ondorioz, **Erresuma Batuan** (1999an % 43) eta **Suedian** (1995ean % 85) merkatuaren zati handi batek hori erabiltzea lortu da.

4.3.2. Beste produktu energetiko batzuk

Motor-erregai ez diren produktu energetikoei aplikatzen zaizkien zergek geroz eta indar gehiago dute **Europan**, eta, kasu askotan, erreforma fiskal 'berdea' izenez ezagutzen direnen barruan sartzen dira. Zerga horiek garrantzi handia dute; izan ere, prezioan aldaketak eginge

gero (ehunekotan), epe motzera energiaren erabilera (ehunekotan) asko aldatzen ez bada ere, epe luzera asko nabaritzen da. Hau da, termino ekonomikoetan esanda, prezioaren elastikotasuna askoz handiagoa da epe luzera (Europako Batasunak kalkulatu du elastikotasun hori - 0.7koa dela). Beraz, energia-iturrien gaineko zergak behar bezala erabiliz gero, epe ertain edo luzera, energia aurrezteari dagokionez, ekoizleen eta kontsumitzaileen jokarera aldatu egingo direla espero behar dugu.

Produktu energetikoak kargatzeaz gain, herrialde askok **energia-mota jakin batzuk salbuetsi** egiten dituzte (esate baterako, energia berriztagarriak) edo hainbat erregai-motari tasa murriztuak aplikatzen dizkiete (adibidez, sufre-kantitate gutxiko erregaiak)⁶. Beraz, herrialde batzuetako zergazko sistemak, energia aurrezteari bultzatzeaz gain, ingurumen-inpaktuaren arabera energia-motek bata bestea **ordezkatzeari** sustatzen du.

Ondoren, Europako hainbat herrialdetan CO₂ eta SO₂-aren gaineko zergak ezartzeko garaian izandako esperientziak deskribatzen ditugu.

Alemania, Danimarka, Eslovenia, Finlandia, Herbehereak, Italia, Norvegia eta Suedia CO₂-aren gaineko zerga 90eko hamarkadan sartu zuten zortzi herrialdeak dira. **Frantzia** eta **Erresuma Batuan** iaz jarri zen indarrean, eta **Belgikan** eta **Luxenburg-en** orain ari dira hori aztertzen.

Energiaren gaineko zergaren **sistema danimarkarrak** bilakaera bat izan du, eta energiaren erabileraren eta CO₂ eta SO₂-aren gaineko zergak politikako bitartekoekin eta egitura-aldaketekin batera biltzen dituen neurri-multzato bat sortu da. Danimarkako gobernuak kalkulatu du neurri-multzato hori indarrean jartzearen ondorioz (1995ean), 2005. urterako CO₂-aren isurpenak % 3.8 jaitsiko direla, eta murrizketaren % 2 zergek eragingo dutela (Danimarkako gobernuak, 1999).

1996an **Danimarkako gobernuak** ezarri zuen produktu energetikoetako sufre-kantitatearen gaineko zergak eragin azkarra izan du bai ikatzeko eta petrolio-erregaiak (fuel-olioa) sufre-kantitatearen batez bestekoan (eta, beraz, SO₂-aren isurpenetan), bai teknologiaren garapenean eta desulfurazio-plantak ezartzean.

Suedian, industrian, CO₂/energiaren gaineko zerga 1991n jarri zen indarrean. Suediako gobernuak, gainerako herrialdeekin beren ekonomietan antzeko neurriak sartzeko denbora asko pasatuko zela ikusita, zergaren tasa % 25 jaitsi zuen 1992an; hala ere, 1997tik pixkanaka-pixkanaka gehitu egin da.

⁶ Horrez gain, beste bitarteko interesgarri batzuk ere badaude; esate baterako, hainbat teknologiatan inbertitzeagatik egindako kenketak, teknologia 'garbietan' inbertitzeagatik emandako diru-laguntzak edo muga-zerga desberdinak.

lkatzeko, zohikatzeko eta petrolioaren eratorrietako sufreakantitatearen gaineko zerga ezartzearen ondorioz, 1989tik 1995era SO₂-aren isurpenak guztira % 30 jaitsi direla kalkulatu da.

Finlandian CO₂-aren gaineko zerga 1990ean ezarri zen, eta, zerga hori ezartzearen ondorioz, 1998an zergarik gabe isuriko zatekeena baino % 7 CO₂ gutxiago isuri zela kalkulatu da (4 milioi tona murriztu ziren).

4.3.3. Ibilgailuak

Europako herrialde gehienetan ibilgailuak erosteari eta matrikulatzeari lotutako zergak aplikatzen dituzte. Zerga horiek izaera fiskal hutsa izaten dute, baina jendeak ibilgailu gutxiago erosteko balio lezakete. Horren eragina **Danimarkako** eta **Alemaniko** egoerak alderatuta ikus daiteke: **Danimarkan** matrikulazio-zergak oso altuak dira (ekoizpen-kostuaren % 180ra hel daitezke), eta, horren ondorioz, herrialdeko % 34k bakarrik du ibilgailua. Beste aldean dago **Alemania**; herrialde hartan, matrikulazio-zergak oso baxuak dira, eta, ondorioz, herrialdeko biztanleen % 50ek du ibilgailurik. Hala ere, azterketa batzuen arabera, ibilgailuen prezioak ez du hainbeste baldintzatzen horien jabetza (hau da, ibilgailuen prezioa aldatuta ere, ez da aldaketa handirik gertatzen pertsona batek dituen auto-kopuruan); beraz, matrikulazio-zergak erabilera pribaturako ibilgailuak eskuratzean eragin nabarmendik ez duela uste da (baldin eta ibilgailuen prezioan aldaketa nabarmenak egiten ez badira) (Van Wee, 1995).

Europako hainbat herrialdetan ibilgailuen ingurumen-ezaugarrien arabeko zergak ezarri dituzte. Esate baterako, **Suedian** hiru ibilgailu mota daude, eta 1. motakoak gutxien poluitzen dutenak dira eta 3. motakoak gehien poluitzen dutenak. 1993an, 3. motako ibilgailuen matrikulazio-zerga 2000 koroa igo zuen

Suediako gobernuak, eta 1. motako ibilgailuen matrikulazio-zerga 4000 koroa jaitsi zuen. Neurri horren ondorioz, hurrengo 3 urteetan 1. eta 2. motako ibilgailuen proportzioa igo egin zen: 1993an % 13 izatetik, 1996an % 78 izatera pasatu zen. Hala ere, nabarmendu beharra dago, zerga desberdintzearen ondorioz, ibilgailuaren azken prezioak aldaketa oso txikia izan zuela; beraz, Suediako ingurumen-agentziek uste dute, prezioen aldaketan oinarritutako erreakzioa barik, ingurumen-informazioaren eta -kontzientziazioaren konbinazioaren eragina izan zela.

Suedian 'desegite-tasa' izenekoa (scrapping charge) ere badute; tasa hori matrikulatzeko unean ordaintzen da. Ibilgailuak ez abandonatzeko pizgarri gisa erabiltzen da; izan ere, jabeak ibilgailua baimendutako desegite-zentro batera eramaten duenean, itzuli egiten da. **Herbehereetan**, 'erretiratzeko-tasa' ordaintzen da, eta, horren bidez, zirkulaziotik kendutako ibilgailuak desegiteko prozesua finantzatzen da.

Matrikulazio-zergez eta ibilgailuen salmentari lotutako zergez gain, **Europa** osoko administrazioek urteko zirkulazio-zerga dute. Urteko zirkulazio-zerga horrek, matrikulazio-zergak bezala, izaera fiskala du, baina pizgarri egokiak ezartzeko ere balio dezake. Oinarritzko-zerga arruntenak **pisua** eta **zilindro-bolumena** dira, eta horrek guxiago poluitzen duten ibilgailuak gehiago erostea eragiten du. Diesel ibilgailuak eraginkorragoak dira energetikoki, baina ingurumenari kalte gehiago egiten diote; ondorioz, gasolina behar duten ibilgailuek baino tasa gehiago izaten dituzte.

Herrialde batzuek, adibidez **Alemaniak**, **Danimarkak** eta **Italiak**, urteko zirkulazio-zerga ezberdinak aplikatu dizkiete ibilgailuei, isurpenen eta eraginkortasun energetikoaren arabera. **Austrian**, **Herbehereetan** eta **Irlandan** zerga murriztuak –edo batere ez– aplikatzen dizkiete ibilgailu elektrikoari. Hala ere, neurri horiek oso eraginkortasun gutxi dute.

4.3.4. Nekazaritzako sargaiak

Europako herrialde batzuetan, ongarriak eta pestizidak erabiltzearen gaineko zergak ezarri dituzte, horiek nekazaritza-jardueretan gutxiago erabiltzeko. Pestiziden eskaera oso gutxi aldatzen da prezioak aldatuta ere (pestizida-eskaeraren prezio-elastikotasuna -0.2 eta -0.5 artekoa da); beraz, politika horren eragina ez dela oso nabarmena izango uste da. Bestalde, herbizida-, fungizida eta intsektizida-eskaeraren prezio-elastikotasuna handiagoa da (EIM, 1999).

Danimarkan, 1995ean pestiziden gaineko zerga ezarri ondoren, pestiziden erabilera % 10-13 murriztu zen 1995/96tik 1997ra; hala ere, herrialde hartako gobernauk onartzen du murrizketa hori ezin dela izan zergari nekaraziek emandako erantzuna bakarrik. **Suedian**, pestiziden gaineko zerga aplikatzearen ondorio nagusia honako hau izan da: nekazaritzako jardunbide egokiagoak ikertzen eta prestatzen izandako gastuak finantzatzeko aukera izatea.

Europan pestiziden gaineko zergak bost herrialdetan aplikatzen dira: **Belgikan** (ez da nekazaritzan aplikatzen), **Danimarkan**, **Finlandian**, **Norwegian** eta **Suedian**. Pestiziden gaineko zergen interesa hazten ari da; izan ere, gizartean geroz eta ardura gehiago dago horiek nekazaritzan eta baratzezaintzan erabiltzearen ondorioak direla eta. **Herbehereetan** eta **Frantzia** 2000. urtean aztertu zuten pestiziden erabileraren gaineko zergak ezartzea. Bestalde, **Erresuma Batuak** zerga horiek ez ezartzea erabaki du, eta nahiago du ingurumen-akordioekin lan egin.

Europan, ongarrien gaineko zergak ezartzearen ondorioz, produktu horien erabilera gutxitu egin da. Horixe gertatu da **Austrian** eta **Finlandian** ere, **Europako Batasunean** sartu zirenean kendu baitzituzten ongarrien gaineko zergak. **Suedian**, oraindik aplikatzen dira ongarrien gaineko zergak, eta, herrialde hartan, ongarrietan nitrogeno-dosia eta kadmio-edukia gutxitu egin direla antzeman da (Ingurumena Babesteko **Suediako** Agentzia, 1997). **Estatu Batuei** dagokienez, ongarriak erabiltzearen gaineko zergen tasak nahiko baxuak direla eta ez direla nekazaritza-jarduerak aldatzeko adinakoak onartzen da; horrez gain, estatu-agintariak ongarriak ikuskatzeko eta biltegitatzeko jarduerak finantzatzeko bakarrik erabiltzen dira (US EPA, 2001).

4.3.5 Beste produktu batzuk

Sail honetan, beste produktu batzuen gaineko zergak aztertzen dira: ozono-geruza kaltetzen duten gai kimikoak, pilak, olio lubrifikatzaileak, disolbatzaileak,

erabili eta botatzeko ontziak, plastikozko poltsak eta pneumatikoak.

Herrialde askotan (**Australian**, **Danimarkan**, **Estatu Batuetan**, **Txekiar Errepublikan** eta **Suedian**) aplikatzen dituzte ozono-geruza kaltetzen duten gai kimikoen gaineko ingurumen-zergak. Gai horiek ordezkatzeko pizgarri gisa erabiltzeaz gain, bilketa- eta deuseztatze-programak finantzatzeko ere balio dute. Ingurumena Babesteko **Estatu Batuetako** Agentziaren ustez, zerga horiek asko lagundu dute **Estatu Batuetan** ozono-geruza kaltetzen duten gaien erabilera murrizteko; hala ere, beste faktore batzuek –adibidez, baimen negoziagarrien sistema izateak– ere horretan asko lagundu dutela onartzen du (US EPA, 2001).

Belgikan, **Danimarkan**, **Italian**, **Suedian** eta **Suitzan** pilen gaineko zerga aplikatu da; **Danimarkan**, esate baterako, horien potentziaren araberakoa da. Normalean, zergekin jasotakoa horien bilketa eta tratamendua finantzatzeko erabiltzen da.

Danimarkan, **Finlandian**, **Italian**, **Norwegian**, **Txekiar Errepublikan** eta **Estatu Batuetako** estatu batzuetan olio lubrifikatzaileen gaineko zerga aplikatzen da, eta, pilen gaineko zergarekin gertatzen den bezala, horrekin jasotakoa horien bilketa eta tratamendua finantzatzeko erabiltzen da.

Danimarkan eta **Norwegian** disolbatzaile kloratuaren gaineko zerga aplikatzen da, eta **Suitzan** konposatu lurrunkor organikoen (KOL) gaineko zerga aplikatzen da.

Austrian, **Belgikan**, **Korean**, **Danimarkan**, **Finlandian**, **Italian**, **Japonian**, **Norwegian** eta **Suitzan** erabili eta botatzeko ontzien gaineko zerga bat dago. **Belgikan**, **Danimarkan**, **Finlandian** eta **Norwegian** edarien ontzien gaineko zergak daude. **Danimarkan**, **Korean** eta **Norwegian**, zergazko tasa desberdinak aplikatzen dira ontzien gaineko zergetan, erabilitako materialaren arabera. Horrez gain, **Danimarkan** plastikozko poltsen gaineko zerga bat ezarri zen 1994an, eta, horren ondorioz, plastikozko poltsen kontsumoa % 50 murriztu zen bi urteko epean.

Kanadan, **Danimarkan**, **Finlandian**, **Hungarian** eta **Estatu Batuetako** estatu batzuetan, pneumatikoen gaineko zergak daude, eta pneumatiko-motaren araberakoak dira. Kasu guztietan, erabilitako pneumatikoen bilketa eta tratamendua finantzatzeko erabiltzen da zerga horien bidez jasotakoa. **Finlandiaren** kasuan, erabilitako pneumatikoak jasotzeko eta kudeatzeko sistema enpresa pribatu baten esku dago.

4.4. Bitarteko fiskal berdeen beste adibide batzuk

4.4.1. Errepideak/autobideak erabiltzearen gaineko tasak

Normalean, **autobideak erabiltzeagatik ordaindutako bidesariak** errepideak egiteko erabiltzen dira, eta, horregatik, ez da ingurumen-zerga gisa hartzen. Hala ere, kasu batzuetan, errepideak erabiltzearen gaineko tasak zirkulazioaren pilaketa kontrolatzeko erabiltzen dira (adibidez, Oslon, Norvegian). US EPAn (2001) (53. orrialdea) **Kaliforniako, Houstongo** eta **Floridako** esperientziak deskribatzen dira; lurralde horietan, errei azkar batzuetan bidesari altuagoa ezartzen da puntako orduetan, edo pilaketa gutxiago izaten diren orduetan ibiltzea aukeratzen duten bidaiari bidesaria murrizten zaie. Gune jakin batzuetatik (normalean erdiguneak) ibiltzen diren bidaiarientzat ordainketa-eskemak ere ezarri dira, eta horien bidez bildutakoa garraio publikoa finantzatzeko erabiltzen da (Londresen aurki jarriko dute antzeko ezaugarriak dituen eskema bat).

Beste adibide bat, oraingo honetan **Europar**, 2000ko uztailaren 1ean **Belgikan, Herbehereetan, Luxenburgan, Alemanian, Suedian** eta **Austrian** martxan jarri zen 'Eurovignette' izeneko da. Herrialde horiek ez dituzte bidesariak aplikatzen autobideetan, baina garraiolariak 'Eurovignettea' eskuratu behar dute herrialde horietako autobideak erabili nahi badituzte. Bildutakoaren erabilerak zehaztuko du zein neurritan har daitezkeen eskema horiek ingurumen-tasa edo -zerga gisa.

4.4.2 Turismoaren gaineko tasak

Balear Uharteetan turismoaren gaineko ekotasa bat ezarri da. Hoteletan, apartamentuetan edo kanpinetan ostatu hartzen duten turistek gau bakoitzeko 0.25 eta 2 euro artean ordaindu behar izaten dute. Diru-sarrerak ingurumen-birsorkuntzarako funtsean sartzen dira.

Neurri hori **Kanariar Irletan** ezarri nahi da laster.

5. Erreforma Fiskal 'Berdeak' Europan

90eko hamarkadaren hasietatik, Europako hainbat herrialdeetan ekin diote Erreforma Fiskal Berdeari, eta ingurumeneko zerga berriak ezartzeak beste sail batzuetan zergazko oinarria gutxitzea ekarri du. Kasu gehienetan, **guztizko karga fiskal konstanteari eutsiz** gauzatu da hori.

Erreforma fiskalari ekin zion lehen herrialdea **Finlandia** izan zen, eta CO₂-aren isurpenak murrizteko diseinatutako zerga bat ezarri zuen. 1990ean izan zen hori, eta erregai fosilen erabileraren gaineko zerga ia uniforme zen (salbuetsitako erabilera batzuekin). Pixkanaka-pixkanaka, energiaren erabilera intentsiboagoak zituzten industria-sektoreak babesteko aldaketak sartzen hasi ziren, eta elektrizitatearen gaineko zergak zentral elektrikoetan erregaien erabileraren fasean aplikatuzetik kontsumoaren fasean aplikatzera pasatu ziren. **Finlandian**, CO₂-aren isurpenen gaineko zerga horrekin jasotakoa lanaren gaineko zergak murriztearen ondorioa konpentsatzeko erabili da.

CO₂-aren isurpenak murrizteko diseinatutako zerga ezarri zuen hurrengo herrialdea **Norvegia** izan zen, 1991n ezarri zuen zerga hori. Ondoren, 1996an, **'dibidendo bikoitza'** izateko aukera eztabaidatzen hasi ziren: **ingurumenaren eta enpleguaren kalitatea hobetzea**, lanaren gaineko zerga batzuen ordez CO₂-aren isurpenen gaineko zergak jarritz Hala ere, 1998an, gobernuek proposamena parlamentura eraman zuenean, lan-merkatuaren egoera oso ona zen eta dibidendu bikoitzaren gaiari ez zitzaion hainbesteko garrantzirik eman. Hala ere, zerga horrekin lotutako sarreren zati bat, batetik, energia aurrezteko eta energia-iturri berriztagarrien garapenerako inbertsioak bultzatzeko eta, bestetik, errentaren gaineko zerga murrizteko erabili da.

Suedian, erreforma fiskala 1991n ezarri zen, **neutraltasun fiskalaren egoeran**. Errentaren gaineko zergak murriztu egin ziren, eta jaitziera hori CO₂-aren eta sufreako gaineko zergen diru-sarrerekin konpentsatu zen; horretarako, energiaren gaineko zerga berregituratu egin zen eta balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-oinarria zabaldu egin zen. Era berean, industria-sektoreak ordaindu beharreko zerga batzuk murriztu egin ziren. Iazko aurrekontuan, gasolioaren, berogailuetako petrolioaren (heating oil) eta elektrizitatearen gaineko zergak igotzearekin batera, errentaren gaineko zergak eta gizarte-segurantzara egin beharreko kontribuzioak jaitzi egin ziren.

1992an **Danimarkan CO₂-aren gaineko zerga** ezarri zen erregaietan, eta ordutik etengabe berritu da energiaren gaineko zergen sistema. **Danimarkako** erreformaren



helburu nagusiak bi dira: (1) errenta-atal guztietan aplikatutako zergazko tasa marginal guztiak murriztea eta (2) errentaren eta lanaren gaineko zergazko kargak pixkanaka-pixkanaka poluzioaren eta baliabide natural urrien kargetara transferitzea. Dena den, Danimarkako zerga-sistema konplexua denez eta aplikatu beharreko salbuespenkopurua handia denez, erreforma fiskal berde honek ingurumeneari duen eraginkortasuna nahiko txikia da.

Herbehereetan hirugarren Erreforma Fiskal Berdean murgilduta daude gaur egun. Lehen erreforma 1988an egin zuten, eta, garai hartan, erregaien gaineko zerga orokor bat eta beste ingurumen-zerge batzuk ezarri ziren. Bigarren erreforma 1995ean egin zuten, eta, orduan, energiaren gaineko zerga berria ezarri zuten. 2000n, hirugarren erreforma fiskala hasi zenean, lehen-lehenik **Erreforma Fiskalerako Batzordea** sortu zuten; batzorde horrek 2001erako aurreikusitako erreforma fiskal berdearen proposamena diseinatu behar zuen.

Erreforma fiskalen lehen aldia **Belgikarekin** amaitu zen. Herralde horretan, energia pribatua erabiltzearen gaineko zerga bat ezarri zen 1993an, eta zerga horrekin jasotakoa enpresek gizarte-segurantzari egin beharreko kontribuzioa murrizteko erabiltzen da.

Erreforma Fiskal Berdeen bigarren aldiko protagonistak **Erresuma Batua, Italia, Alemania** eta **Frantzia** dira.

Erresuma Batuan hondakindegien tasa ezarri zen 1996an, eta horrekin jasotakoa gizarte-segurantzari egin beharreko kontribuzioak murrizteko erabiltzen da. Halaber, 2001eko apirilean, 'klimatekaren' gaineko zerga sartu zen: industriaren eta zerbitzuen sektoreetan, energia erabiltzearen gaineko zerga. Gainera, aurten (2002) harea garbiaren, legarraren eta harkaitzaren erabileraren gaineko zerga ezartzea aurreikusi da.

1998an, **Italian**, CO₂-aren **isurpenak murrizteko diseinatutako zerga** ezarri zen eta erregai mineraleri aplikatu zitzaion. Diru-sarreraren % 60.5 'birziklatu' egiten da **gizarte segurantzari kontribuzioak murriztuz**, eta % 31.1 **neurri konpentsatzaileetarako** erabiltzen da. Hala ere, 1999an petrolioaren prezioa igotzearen ondorioz, Italiako gobernua petroliotik eratorritako produktuen gaineko zergak jaitsi egin zituen, eta, beraz, erreforma fiskala atzeratu egin zen.

Alemanian Erreforma Fiskal Berdea 1999ko apirilean egin zen. Erreforma horren bidez, **petrolio mineralaren eta elektrizitatearen gaineko zergak** igo egin ziren. Aparteko diru-sarrera hori **pentzioen aseguruari egin beharreko kontribuzioa** % 0.8 jaisteko erabiltzen da (erdia enpresaburuen kontribuzioetan eta beste erdia langileen kontribuzioetan). Erreformaren bigarren fasean, petrolio mineralaren (0.06 marko -0.03 €- litro bakoitzeko) eta **elektrizitatean** (0.005 marko KWh bakoitzeko) **gaineko zergazko urteko tasa igo** egingo da 2000tik 2003ra. Horren bidez, pentzioen aseguruari egin beharreko kontribuzioa % 1 jaitsi ahal izango da 2000tik 2003ra (2000. urtean 0.1 eta 0.3 hurrengo hiruretan).

Frantzian ere erreforma fiskala 1999an egin zen, eta **jarduera poluitzaileen gaineko zerga orokorra ezartzea** (TGAP) proposatu zen, erregai fosilak eta elektrizitatea ere barruan hartzeko. Neurri osagarri batzuk (isurpenen kreditu-sistema bat, salbuespenak...) ere proposatu ziren, baina 2000. urtean Auzitegi Konstituzionalak konstituzioaren aurkakotzat jo zuen erreforma hori.

Azkenik, ondorengo taulan, ingurumen-zergetan eta zerga orokorretan dauden abantaila fiskalen laburpena azaltzen da (Britainia Handiko salbuespen- eta kenketa-eskemaren kasuan bezala, "Enhanced Capital Allowance").

7. taula

INGURUMENARI LOTUTAKO HAINBAT ABANTAILA FISKAL (SALBUESPENAK ETA KENKETAK) BESTE HERRIALDE BATZUETAN APLIKATUTAKOAK	
Herraldea	
Danimarka, Finlandia, Alemania, Herbehereak, Erresuma Batua	Iturri jakin batzuen bidez (eolika, hondakinen gasak, hidrologikoa, etab.) sortutako elektrizitatearen ekoizpenaren gaineko zergetan salbuespen- eta itzultze-sistema bat dute
Austria	Energia- eta bero-sortzaileetan erabilitako diesel litro bakoitzeko itzulketak egiten dira
Danimarka	CO ₂ -aren isurpenen gaineko zergak itzuli egiten dira, energia aurrezteko egindako inbertsioengatik
Finlandia, Alemania, Suedia, Erresuma Batua	Hainbat zergetan kenketak eta itzulketak egiten dituzte, energia aurrezteko teknologietan inbertitzearen truke eta gutxiago poluitzen duten erregaiak erabiltzearen truke
Austria, Danimarka, Finlandia, Alemania, Suedia, Erresuma Batua, AEB	Hidrokarburoen gaineko eta kontsumo elektrikoaren gaineko zergetan itzulketak egiten dituzte, garraio publikoan erabilitako hainbat erregairen kasuan. Gainera, horietako batzuen kasuan teknologia jakin batzuk bultzatzeko diru-laguntzak ematen dituzte (adibidez, Danimarkan)
Finlandia, Suedia, Norvegia, Erresuma Batua	Hondakinak isurtzearen gaineko zergetan salbuespen fiskalak eskaintzen dira, hondakinak leku espezializatuetan uztearen truke

2. KAPITULUA:

EAE-ko eta Espainiar Estatuko Zerga-Sistemen Diagnostikoa

1. Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoan eta espainiar estatuan ingurumen-inposizioa ez da Europako beste hainbat herrialdetan bezain arrunta. Hala ere, Europako Batasunak gai honetan aurreratuen dauden herrialdeen eredia hartu du kontuan (**Suedia, Norvegia, Alemania**, etab.), eta ingurumen-zergen sistemaren aldeko apustu garbia egin du; horrenbestez, zenbait herrialdetan gauzatu diren Erreforma Fiskal Berdeei laguntza eman die. Testuinguru horretan sartu behar dugu EAEko erreforma martxan jartzeko azterketa hau. Horretarako, dokumentu honetan, Espainiako eta EAEko zerga-sistemak aztertzen dira, ingurumenean eragina duten zergen zerrenda jasotzen du eta EAEko Erreforma Fiskalerako aholkuak ematen ditu (3. kapitulua).

2. Zerga-sistema Espainian

Espainiar estatuan zergazko hiru maila daude, zergak sortzeko, aldatzeko eta biltzeko eskumena duen gobernuaren mailaren arabera (zentrala, autonomikoa edo udalerrikoa). Oro har, figura batzuk Autonomia Erkidegoen esku badaude ere, **espainiar estatuko zergak 8. taulan** deskribatzen dira.

Zergen eremuan, **autonomia erkidegoek** beren zergak ezartzeko gaitasuna dute, beti ere Autonomia Erkidegoen Zerga Sistemari buruzko Lege Organikoan (LOFCA) finkatutako printzipioak errespetatzen badituzte. Printzipioak honako hauek dira:

1. Estatuan kargatu gabeko zergapeko egitateen gainean bakarrik ezarri ahal izango dituzte, zerga bikoitza ez izateko.
2. Lurraldean izandako zergapeko egitateak bakarrik kargatu ahal izango dituzte, zergen esportazioa gerta ez dadin.

Zerga horiek ezartzeak inoiz ez du oztopo fiskalik sorrarazi beharko erkidegoan, barne-merkatuaren batasunari eusteko.

Gainera, Tokiko Ogasunen Legean aurreikusitako kasuetan bakarrik sortu ahal izango da dagoeneko udalerrri mailan kargatutako zergapeko egitate bat kargatzeko zerga bat; zehazki, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko udal-zergari eta ehizaren eta arrantzaren alorretan luxu-gastuen gaineko udal-zergari dagokienez. Autonomia erkidego batek aukera hori baliatzea erabakitzen badu, lurralde horretako udalerriei udal-mailako zerga hori desagerrarazteak eragingo liekeen galera konpentsatu beharko die.

Bestalde, konstituzioaren arabera, autonomia erkidegoek honako funtzio hauek dituzte, besteak beste:

1. Legegintza garatzea eta erregimen energetikoa gauzatzea, estatuak ezarritako oinarriak errespetatuz.
2. Ingurumenaren babesa kudeatzea, gai honetako estatuko oinarritzko legeak garatzea eta ingurumena babesteko neurri osagarriak ezartzea.

Beraz, autonomia erkidegoek, Konstituzioak eta LOFCA ezarritako mugak errespetatuz, beren zergak ezar ditzakete, eta, zehatzago esanda, ingurumena babestearekin lotutako zergak ezar ditzakete. Praktikan, autonomia erkidego asko baliatu dute beren zergak ezartzeko aukera hori, **9. taulan** ikus daitekeen bezala, eta horietako asko ingurumena babestearekin lotuta daude.



8. taula

ESTATU MAILAKO ZERGAK	
Zerga	Deskribapena
Errentaren gainekoa	
PFEZ (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga)	Pertsona fisikoei errenta jasotzea kargatzen du
Elkarleen zerga	Pertsona juridikoei errentak jasotzea kargatzen du
Kapitalaren gainekoa	
Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergak	Pertsona fisikoei dohain ondarea eskuratu izana kargatzen du
Ondare garbiaren gaineko zerga	Pertsona fisikoei ondasun baten gainean duten titulartasuna kargatzen du
Transmisioen gainekoa	
Transmisioen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga:	Pertsona fisiko eta juridikoen BEZik gabeko kostu handiko transmisioak, sozietateen eragiketak, eskubideen sorrera, egintza juridiko dokumentatuak eta abar kargatzen ditu
<ul style="list-style-type: none"> • Ondare-transmisioak • Sozietate-eragiketak • Egintza juridiko dokumentatuak 	
Kontsumoaren gainekoa	
Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ)	Jarduera ekonomikoak garatzen dituztenek ondasunak entregatzea eta zerbitzuak ematea kargatzen dute
Zerga bereziak:	Pertsona fisiko eta juridikoei kontsumorako ondasun jakin batzuk egitea edo inportatzea, ibilgailuen lehen matrikulazioa, aseguru-eragiketak egitea eta abar kargatzen dute
<ul style="list-style-type: none"> • Alkohola eta edari alkoholdunak • Hidrokarburoak • Tabakoaren inguruko lanak • Matrikulazioa eta garraiobideak • Elektrizitatea • Aseguru-sariak 	
Nazioarteko merkataritzaren gainekoak	
Aduanetako zergak	Europa mailako merkantzien sarrera eta irteera

Udalerriei dagokienez, Tokiko Ogasunen Legeak udalen bi zerga-mota ezartzen ditu; batzuk nahitaezkoak dira eta beste batzuk borondatezkoak. Lehen multzokoak, hau da, nahitaezkoak, honako hauek dira:

- Ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ). (Desagerraraztea planteatu dute)
- Ehiza- eta arrantza-esparru pribatua izateko luxu-gastuen gaineko zerga.
- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.

Udalek aukera ditzaketenak edo borondatezkoak honako hauek dira:

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.
- Hiri-lurren balio-gehitzearen gaineko zerga.

9. taula

AUTONOMIA ERKIDEGOEN ZERGAK	
Erkidegoa	Bitartekoa
Andaluzia	<ul style="list-style-type: none"> • Gutxiegi erabilitako lurren gaineko zerga • Isurtzeko baimenengatikoko kanona
Aragoi	<ul style="list-style-type: none"> • Saneamenduko kanona
Asturias	<ul style="list-style-type: none"> • Bingoaren gaineko zerga • Gutxiegi erabilitako lurren gaineko zerga • Uren saneamenduko kanona • Loterien gaineko zerga
Balear Uharteak	<ul style="list-style-type: none"> • Bingo jokoaren gaineko zerga • Uren saneamenduko kanona • Ingurumenari eragiten dioten instalazioen gaineko zergak
Kanariar Uharteak	<ul style="list-style-type: none"> • Kanarietako zeharkako zerga orokorra • Petroliotik eratorritako erreagaien gaineko zerga
Kantabria	<ul style="list-style-type: none"> • Bingo jokoaren gaineko zerga
Gaztela-Mantxa	<ul style="list-style-type: none"> • Bingo jokoaren gaineko zerga • Ingurumenari eragiten dioten jardueren gaineko zerga
Katalunia	<ul style="list-style-type: none"> • Bingo jokoaren gaineko zerga • Azpiegitura hidraulikoaren kanona • Uren saneamenduko kanona eta saneamendu-tarifaren igoera
Extremadura	<ul style="list-style-type: none"> • Gutxi erabiltzen diren larreen gaineko zerga • Gutxiegi erabilitako sail ureztatuen gaineko zerga • Ustiapen zinegetikoaren gaineko zerga • Ingurumenari eragiten dioten instalazioen gaineko zerga
Galizia	<ul style="list-style-type: none"> • Bingo jokoaren gaineko zerga • Hondakin-uren saneamenduko kanona • Atmosferaren poluzioaren gaineko zerga
Madril	<ul style="list-style-type: none"> • Uren saneamenduko kanona
Murtzia	<ul style="list-style-type: none"> • Bingo jokoaren gaineko zerga • Atmosferara gas poluitzaileak isurtzeagatikoko kanona • Saneamenduko kanona • Itsasora isurpenak egitearen gaineko zerga
Nafarroa	<ul style="list-style-type: none"> • Bete gabe dauden etxebizitzaren gaineko zerga
Errioxa	<ul style="list-style-type: none"> • Uren saneamenduko kanona
Valentzia	<ul style="list-style-type: none"> • Uren saneamenduko kanona



3. Zerga-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan

EAEren kasuan, zergen alorrean estatuarekiko harremanak kontzertu-sistema baten bidez araututa daude. Kontzertu Ekonomikoaren arabera, alegia:

1. Lurralde historikoen zergak zein diren zehazten du. Zerga horiei 'hitzartutako zergak' izena ematen zaie.
2. Zergadun bakoitzak zergak zein administraziori ordaindu behar dizkion esaten du, konexio-puntuak zein diren finkatzen du.
3. Lurralde historikoen hitzartutako zergak diseinatzeko zein askatasun duten zehazten du.

Gaur egungo kontzertuarekin, hitzartu gabeko zerga bakarrak, hau da, lurralde historikoetako hiritarrek estatuari ordaintzen dizkietenak, honako hauek dira:

(a) Zergak

- Aduanen errenta.
- Estatu funtzionarioen eta langileen atxikipenak.
- Estatuak edo Erregimen Komuneko erkidegoek aktibotatik igorritako kapitalaren atxikipenak.
- Monopolio fiskalak.

(b) Tasak

- EAEk bere gain hartu gabeko zerbitzuei lotutako tasak, prezioak eta beste diru-sarrera batzuk.

(c) Kotizazio sozialak

- Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak.

Gainerako zergak hitzartutakoak dira, baina horietako batzuek ez dute arautzeko gaitasunik, hau da, estatuan indarrean dagoen araudi berberarekin aplikatzen dira. Araudi komuna duten hitzartutako zergak honako hauek dira:

- BEZa.
- Zerga bereziak.

Azkenik, araudi autonomoa duten hitzartutako zergak daude. Foru Diputazioek erabateko autonomia dute horietan, baina bateratutako printzipio orokorrak errespetatu behar dituzte:

- PFEZa.
- Sozietateen zerga (zergak EAEn bakarrik ordaintzen dituztenentzat).
- Ondarearen gaineko zerga.
- Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergak.
- Transmisioen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga (sozietate-eragiketen, kanbio-letren eta antzeko dokumentuen gainekoak izan ezik).
- Joko-tasa.

4. Ingurumenean eragina duten zergak espainiar estatuan

Espainian dauden zergen eta beste bitarteko fiskalen artean, ingurumenean eragina duten zergak honako hauek dira: ingurumen-aldagaia sartzeko diseinatuta ez badaude ere, ingurumenean egiten den presioan zuzenean edo zeharka eragin dezaketenak. Hona hemen Espainian dauden zergak, dagokien gobernu-mailaren arabera.

4.1. Estatu mailan

Estatu mailan, ingurumenean eragina duten hainbat zerga daude Espainian, eta horiek honako taldeetan biltzen dira:

4.1.1. Motor-erregaien gainekoak

Motor-erregaien gaineko zergak asko erabili izan dira, biltzeko gaitasun handia eta ingurumena babesteko bitarteko gisa ahalmen handia baitute. Zerga horiek honela banatzen dira: (a) **Hidrokarburoen gaineko zerga berezia**.

Zerga horrek honako hau kargatzen du:

- **Berunik gabeko gasolina eta beruna duen gasolina:** berunik gabeko gasolina eta beruna duen gasolina kargatzen dira, bilketa hutsa egiteko; hala ere, berunik gabeko gasolina da karga txikiena duena, gutxien poluitzen duena baita. Bildutakoa aurrekontu orokorretarako erabiltzen da.

- **Diesela/gasolioa:** aurreko biak bezala, baina zenbatekoa askoz txikiagoa da. Hori ikuspuntu ekonomikotik justifikatu daiteke, garraiolariek eta enpresek gehien erabiltzen dutena baita. Zenbatekoa ez da ingurumen-ikuspegitik justifikatzen, gasolinetan gehien poluitzen duena baita.

- **Beste zenbait: Petrolioaren Gas Likidotuak (PGL) eta kerosenoa:** biak dirua biltzeko kargatzen dira.

Gainera, motordun ibilgailuetarako erregaiak honako zerga hau ere ordaintzen dute: (b) **Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ)**; garraio publikoari tasa murriztua aplikatzen zaio (% 7) eta gainerakoei tasa arrunta (% 16).

4.1.2. Beste produktu energetiko batzuen gainekoa

Zerga-mota hau geroz eta indar gehiago hartzen ari da Europan; izan ere, ingurumen-helburuetarako erabiltzeko aukera handiak ematen ditu. Hala ere, hori ez da gertatzen **Espainian**.

Zergak honako hauek dira:

(a) **Hidrokarburoen gaineko zerga berezia**: honakoa kargatzen du

- **Gasolioa (industrian, merkataritzan eta berogailuetan erabiltzekoa)**: gasolioaren erabilera guztiak kargatzen ditu: merkataritza, industria, berogailua eta gasolio astuna, eta helburua dirua biltzea da.
- **PGL (industrian, merkataritzan eta berogailuetan erabiltzekoa)**: zerga honek PGLren erabilerak kargatzen ditu, eta helburua dirua biltzea da.
- **Kerosenoa (industrian, merkataritzan eta berogailuetan erabiltzekoa)**: aurrekoetan bezala, hidrokarburoen gaineko zergak kerosenoaren erabilera guztiak kargatzen ditu, dirua biltzeko.
- **Gas Naturala**: Idem.

(b) **Elektrizitatearen gaineko zerga berezia**: 1998an jarri zen indarrean eta azken kontsumitzaileak ordaintzen du. 'Ikatzaren meatzaritzari emandako kostu espezifikoek' gainordaina desagerrarazi izana konpentsatzeko ezarri zen.

(c) **BEZa**: beste produktu energetiko batzuen gainean BEZa ere aplikatzen da (% 16).

4.1.3. Ibilgailuen gainekoa

Ibilgailuen gaineko zergak ere ingurumenean eragin handia duten bitartekoak dira, poluzio-iturrietatik zuzenean eragiteko eta erabileraren ondorioz sortutako arazoak gutxitzeko (istripuak, zarata, zirkulazioa, etab.). **Espainian** honako zerga hauek daude:

(a) **Matrikulazio-zerga**:

ibilgailu automobilen, itsasontzien eta aireontzien lehen matrikulazioa kargatzen du. Zerga horren egituran ez da kontuan hartzen ingurumenaren alderdirik; hala ere, bai diesela, bai gasolina erabiltzen duten zilindrada txikiko autoentzat murrizketak izaten dira; eta alokatzeko, garraiolarako, minusbaliatuentzako... ibilgailuetarako salbuespenak ere badaude.

(b) **Konpainiaren autoak**: autoaren balioaren zati bat (% 15) kargatzen da, langilearen errenta pertsonal gisa.

4.1.4. Nekazaritzako sargaien gainekoa

Europako hainbat herrialdetan, horien gaineko zergak ongari eta pestizida jakin batzuen erabilera murriztuz dadin eta ingurumen-inpaktu gutxiago duten beste batzuk erabil daitezkeen bultzatzeko erabiltzen badira ere, **Espainian** ez dute eskema-mota hori. **Espainian** aplikatzen diren zergak honako hauek dira:

- **Ongarriak**: BEZa aplikatzen zaie, baina tasa murriztua duena (% 7), nekazaritzaren gaineko eragin ekonomiko negatiboa murrizteko.
- **Pestizidak**: zuzenean BEZ murriztuaren aipamenik egiten ez bada ere, pestizida jakin batzuei tasa murriztua aplikatzea eztabaidagai da.

4.1.5. Beste produktu batzuen gainekoa

Espainian kargatzen diren beste produktu batzuk honako hauek dira:

- **Olio lubrifikatzaileen gaineko zerga**: Zerga hori 1995ean onartu zen eta olio erabiliak kargatzen ditu. Bildutakoa autonomia erkidegoetan ingurumen-ekintzak finantza-tzeko erabiltzen da.
- **Erabili eta botatzeko ontzietarako gordailuak itzultzeko eskema**: eskema horren bidez, ontziak entregatzerakoan itzultzen den diru-kopuru bat kobratzen da. Estatuan maiz erabili izan da.

4.2. Autonomia erkidego mailan

Autonomia erkidego mailan, ingurumenean eragina duten hainbat zerga daude; hala ere, erkidegoek ez dute bitarteko hori behar beste erabili, ingurumena babesteko ikuspuntutik begiratuta. Honako zerga hauek daude:

4.2.1. Atmosferaren poluzioaren gaineko zerga

Orain arte ezaugarri horiek dituen zerga ezarri duten erkidegoak hiru dira: **Galizia** (1995), **Murtzia** (1995) eta **Gaztela-Mantxa** (2001). Zerga horiek honako hau kargatzen dute:

- **Sufre dioxidoaren (SO₂) isurpenak**: Figura fiskal horiek atmosferara isuritako sufre dioxidoaren isurpenak kargatzen dituzte.
- **Nitrogeno-oxidoen (NO_x) isurpenak**: Nitrogeno-oxidoen isurpenak –eta haien beste edozein konposatu oxigenaturen isurpenak– eta sufre dioxidoaren isurpenak kargatzen dira.

- **Energia elektrikoaren ekoizpen termonuklearra eta hondakin erradioaktiboak biltegitratzea:** Figura hori Gaztela-Mantxako atmosfera poluitzearen gaineko zergaren barruan sartzen da.

Galiziako kasuaz aparte (zergekin bildutakoaren zati bat -% 5- ingurumena babesteko jarduerak finantzatzeko eta Erreserba Funtserako erabiltzen da, ingurumen-hondamendiak sortutako kalteei aurre egiteko), gainerako erkidegoetan zerga horiek ez dute izaera finalistik, hau da, ez dira ingurumena babesteko erabiltzen.

4.2.2. Ingurumeneko beste zerga batzuk

Ingurumeneko zergak honako hauek dira:

(a) Ingurumena kaltetzen duten instalazioen gaineko zerga: Elektrizitatearekin, erregaiekin eta telekomunikazioekin zerikusia duten jarduerak kargatzen dituzte (ekoizpena, transformazioa, garraioa, banaketa, etab.); jardueraren BEGen %1.

(b) Ekotasa: Balear Uharteetan ezarri da eta turismoak uharte ahulean egiten duen presioa kargatzen du. Bildutakoa parke naturalak eta kostak zaintzeko erabiltzen da.

4.2.3. Urari lotutako zergak

Legegile autonomikoek 'kanon' hitza erabiltzen dute kontsumitutako uraren bolumena kargatzen duen figura-multzoaz hitz egiteko, hondakin-uren isurpenen adierazle potentzial gisa. Kanon-mota horiek hamar komunitatetan aplikatzen dira:

10. taula

URARI LOTUTAKO ZERGAK DITUZTEN AUTONOMIA ERKIDEGOAK	
Andaluzia	Valentzia
Aragoi	Galizia
Asturias	Errioxa
Balear Uharteak	Madril
Katalunia	Murtzia

Kanon horiek izen desberdina dute, aplikatzen dituzten erkidegoen arabera. Izen batzuk honako hauek dira:

- Uren saneamenduko kanona
- Isurpen-kanona
- Itsasora isurpenak egitearen gaineko zerga
- Azpiegitura hidraulikoen kanona

Zerga horien ezaugarri nagusiak 11.taulan deskribatzen dira:

11. taula

URARI LOTUTAKO ZERGAK

- Erkidegoko politika hidraulikoa finantzatzeko zergak dira, eta pertsona juridiko eta fisikoei kargatzen zaizkie.
- Hondakin-uren isurpenak kargatzen dituzte, eta jatorri guztietako kontsumo potentziala eta erreala hartzen dituzte kontuan; beraz, zerga-oinarria kontsumitutako uraren bolumena da.
- Honako jarduera hauek salbuetsita geratzen daude:
 - Nekazaritzako ureztapenerako ura
 - Erakunde hornitzaileen hornikuntza
 - Iturri publikoetarako, ur-harguneetarako, suteak itzaltzeko, etab.
- Karga-tasak honako hauek dira:
 - Tasa bakarra industria-erabileretarako gainordainarekin
 - Bi tasa: murriztua etxeko erabilerarako eta gehitua industriako erabileretarako

4.3. Udal mailan


Ingurumenean eragiten duten udal-zergak honako hauek dira:

(a) Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga edo zirkulazio-zerga: Urtean behin ordaintzen den zerga da, eta zirkulatzeko moduan dagoen trakzio-ibilgailu baten titulartasuna zergapetzen du. Zerga honen zenbatekoa ibilgailu-motaren, potentziaren, toki-kopuruaren eta abarren arabera da. Ordaindu beharreko zenbatekoa 12-240 artekoa izaten da, ibilgailuaren ezaugarrien arabera. Kargatzen denak zuzenean ingurumenean eragina badu ere, ez da ingurumen-izaera duen zerga bat.

(b) Ehiza- eta arrantza-esparru pribatua izateko luxu-gastuen gaineko zerga: Zerga honen helburua dirua biltzea da, eta ez da ingurumenaren alorrekoa; hala ere, hainbat espezie kontrolatzeko eta babesteko bitarteko gisa erabil liteke.

(c) Zabor-bilketako tasa eta beste tasa batzuk (edateko ura, estolderia, etab.): tasa horien helburua udalek eskaintzen dituzten zerbitzuen kudeaketaren kostua estaltzea da, eta ez da ingurumen aldagaia sartzen.





3. KAPITULUA:

Etorkizunerako orientazioa eta gomendioak

1. EAEko Erreforma Fiskal Ekologikoaren dekalogo

Aurreko ataletatik ateratako ondorioak aipatuko ditugu orain, dekalogo moduan. Dekalogo honek Erreforma Fiskal Ekologikoa eraginkortasunez eta arrakastaz gauzatzeko egin beharreko jardueren gida gisa balio behar du.

Erreforma fiskalerako aukera Euskal Autonomia Erkidegoan

Politika fiskal eraginkorra eta zuzena duen herrialdeak oparotasuna bermatzen du, eta horretarako ekonomia sendotu eta bizi-kalitatea hobetzen du. Beraz, funtsezkoa da aukera berriak esploratzea, eta, aukera horien barruan, politika fiskalak, inbertsioa eta produktibitatea bultzatzearekin batera, garapen jasangarria eta ingurumenaren babesa sustatzea.

Ingurumeneko Erreforma Fiskala, Erreforma Fiskal Ekologikoa edo Erreforma Fiskal Berdea izena duen herrialde askotako agintarien helburua izan behar du gaur egun; eta, une honetan, beste erronka bat, berria, da Euskadin. Hain zuzen ere, garapen jasangarria lortzeko bidea zerga ekologikoen bidez (energiaren eta ingurumenaren gaineak) sendotzeko aukerari berme osoz erantzuteko bidea ematen du Euskal Autonomia Erkidegoak duen autonomia fiskalak; zerga ekologikoa oraindik ere bigarren mailakoa da Europako Batasunean.

Beraz, jarduera-eremu zabala dago, aurrekontu publikoen aparteko zati bat ingurumena hobetzera bideratutako zerga bereziak gehitu eta zergazko irizpideak eta subjektuak behin betiko aldatzeko; horrela, eragin pizgarriak edo zehagarriak eta gastuaren beraren birbanaketa bateratzearen ondorioek jarduera ekonomikoa jasangarritasunera bideratuko dute.

Erreforma Fiskal Berdearen printzipio orientatzaileak

Ingurumeneko erreforma fiskalak zerga-sistema egokitu behar du honako helburu hauekin: ingurumen-jokaera hobea sustatzea, sektore hori babesteko diru-sarrera gehiago lortzea, ingurumenean aurkako eraginak dituzten jardueri zergak ezartzea, ingurumenari kalteak eragiten dizkieten proiektuei diru-laguntzak kentzea eta ingurumeneko egokiak diren programak bultzatzea.

Beste herrialde batzuetako esperientziak ikusita, Erreforma Fiskal Berdea martxan jartzeko, lau printzipio kontuan hartzea aholkatzen da:

- **NEUTRALITASUN FISKALA:** motibazioa ingurumenaren babesa da eta ez diru-bilketa gehitzea (murrizketak Gizarte Segurantzari kontribuzioetan)
- **BIRBANATZEA:** zergak prezioetan sartzeak tentsioak sor ditzake, baita erreforma fiskalak harrera onik ez izatea ere; horregatik, bildutakoa birbanaketarako ere erabili behar da neurrien aurkako jarrerak 'neutralizatze'ko, beti ere beharrezkoa den kasuetan.
- **"POLUITZEN DUENAK ORDAINDU EGITEN DU":** poluitzen duenak hartu behar ditu bere gain kostuak, eta ez poluitzen ez duenak.
- **ZERGA BILKETAREN ERABILERA/DIBIDENDU BIKOITZA.** Bitartekoek helburu jakina izan behar dute; esate baterako:
 - Jardunbide kaltegarriak ez sustatzea
 - Bildutakoa ingurumena babesteko eta beste zerga desitxuratzaile batzuk murrizteko erabiltzea
 - Enpresen lehiakortasunari kalterik ez egitea

Egungo zergen orientazio berdea

Gaur egun indarrean dauden zergen artean, ingurumen-politikarako garrantzitsutzat jo daitezkeen bitartekoak **sozietateen zerga** eta **PFEZ** dira, autonomia eta udalerrir mailako beste batzuek gain. Kontuan hartu beharreko neurriek kuotan eta zerga-oinarrian murrizketak egiteko joera azaltzen dute:

Sozietateen zerga

- 1. neurria: Errenta aldagarria lortzeko laguntza, ingurumena babesteko eta energia aurrezteko teknologia duten enpresetan.
- 2. neurria: Ingurumena babesteko eta energia aurrezteko gastuan (inbertsioan) laguntza
- 3. neurria: Erreserba bereziak sortzea, ingurumena babestu eta energia aurrezteko inbertsioetarako
- 4. neurria: Amortizazio bizkortuko eskemak, ingurumena babesteko eta energia aurrezteko inbertsioak sustatzeko
- 5. neurria: Teknologia garbieten inbertitzeko emandako diru-laguntzen gaineko zergen eraginari aurre egiteko eskemak
- 6. neurria: Royaltyak eta patenteak sustatzeko eskemak, ingurumena babesteko eta energia aurrezteko teknologietan

PFEZ

- 7. neurria: Kenketak errenta aldagarria eskuratzeagatik, ingurumena babesteko teknologia duten enpresetan edo horietan inbertitzen dutenetan
- 8. neurria: Irabaziak berrinbertitzeagatik kenketak
- 9. neurria: Ingurumena babesteari lotutako gaitan graduondoko ikastaroak egiteko laguntza-eskemak
- 10. neurria: Royalty eta patenteak aurkezteko laguntza-eskemak
- 11. neurria: Laguntza-eskemak, EAEko zentroetan ingurumenaren babesari eta energia aurrezteari lotutako gaitan diharduten nazioarteko ikertzaile ospetsuak sartzeko

Beste batzuk

- 12. neurria: Egungo zerga-bilketa gehitzea ingurumenaren aldaia sartzeko (udal mailan eta erkidego mailan)

Urarekin zerikusia duten beste zerga batzuk

Uraren kanona oso eraginkorra da uraren kontsumoa gutxitzeko, oso neurri zuzena baita: isurtzen denaren arabera ordaintzen da. Une honetan, Bizkaian Uren Kontsorzioa arduratzen da horretaz, eta, beraz, uraren kontsumoaren prezioa ez dute udalerriek finkatzen. Gipuzkoan, ordea, udalerrri bakoitzak bere araudia du.

Horregatik, EAEko uraren kudeaketa integralaren ikuspegitik, zentzu handia du Euskal Autonomia Erkidego mailako kanon batez aritzeak. Berez, 'Uraren Legearen' esparruaren barruan (gaur egun lege hori egiten ari da

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Saila), hainbat kanon sor daitezke (edo bakarra, zergapeko egitate asko hartzen dituen) uretara egindako isurpen-mota guztiei, barruko uretara eta itsasora egindako industria-isurpenei, etxeko isurpenei eta abarrei aplikatu beharrekoak.

Atmosferaren poluzioarekin lotutako beste zerga batzuk

Atmosferaren poluzioari lotutako zergak dirua biltzekoak dira nabarmen, baina, horrez gain, ozono-geruza suntsitzen duten gasen poluzioa gutxitzen laguntzen dute. Zerga horien artean, honako hauek daude:

- Industria-jardueren sulfuro-isurpenen eta nitrogeno konposatuaren gaineko zerga.
- CO₂ eta CO-aren isurpenen gaineko zerga; zerga horrek garrantzi berezia du garraioaren kasuan, eta, horrekin batera, nahiko 'garbitzat' jotzen diren erregaien mesedetan ezarritako zergak ere aplikatzen dira.
- Ibilgailuaren ingurumen-zerga; normalean zarata, istripuak, zirkulazioa eta CO₂-aren, erregaien eta energia-iturrien isurpenak sorrarazten dituzten ibilgailuena.
- Klorofluorokarbuoen (CFCak) eta halogenoen gaineko zergak, Europako eta munduko ingurumen-politikaren ildo beretik.
- Hiriguneko erdialdean eta/edo auto asko pilotzen den guneeetan, ibilgailuen trafikoaren gaineko zerga: helburua hiriguneetan eta hiriaren erdialdean ibilgailuen erabilera gutxitzea da.
- Errepide/autobideak erabiltzearen gaineko zerga edo tasa: autobideetan ordaindutako ordainsarrietan zati bat ingurumenerako izatea da helburua; normalean errepideak eraikitzeke erabiltzen da bildutakoa.

Hondakinak sortzearekin lotutako beste zerga batzuk

Isurpenak egiteaz gain, industriaren jarduerak hondakin solidoak eta hondakin arriskutsuak sorrarazten ditu, besteak beste. Gai honen inguruan ezarri beharreko zergak honako hauek dira:

- Industria-hondakin solidoak isurtzearen gaineko zerga: zerga honekin jasotakoa hondakinak kontrolatzeko, kudeatzeko eta deuseztatzeko jardueretarako erabiltzen da, eta egokitutako lekuetan isurtzen dituztenei zergak itzultzeko mekanismoak sortzeko edo enpresen karga fiskalak murrizteko ere erabil daitezke.
- Hiri-hondakin solidoak isurtzearen gaineko zerga: bilketa-, kudeaketa- eta tratamendu-sistema bereziak (adibidez,

etxetresna elektrikoak) behar dituzten isurpenei aplikatzeko, baita zabor-bilketen eta antzekoen tasetan kargatzen diren isurpenei ere.

- Zabor-poltsa ofizialen eskema: zabor-poltsei kargatzen zaien zerga da; gainera, araudi eta kontrol zorrotza du, zaborra poltsa ofizialetan bakarrik bota dadin.
- Birziklapen-tasa: tasa hau norbanako eta enpresa guztiei aplikatzen zaie, ez birziklatzeagatik sortutako kostuak ordaintzeko. Tasak neurri batetik gorako birziklatze-mailak erakutsi ondoren itzultzen dira.
- Baterien gaineko zerga: baterien gaineko zerga berezia, horiek deuseztatzeko tratamendu egokia erabiliko dela bermatzeko.
- Plastikozko poltsak: poltsa horiek zerga txikiak izaten dituzte herrialde batzuetan, kontrolik gabeko deuseztatzea ez gertatzeko eta plastikozko poltsak ez isurtzeko.
- Pneumatikoen gaineko zerga: behar bezala deuseztatzea sustatzen duen zerga berezia, deuseztatze hori kargatu gabe; izan ere, suntsitzeko garaian arazo gehien sortzen dituen hondakinetakoa bat da.
- Ibilgailuen desegite-tasa: ibilgailuak matrikulatzeko garaian ordaintzen den tasa da eta, ibilgailua baimendutako desegite-zentro batera eramaten denean, itzuli egiten da.
- Aparailu elektriko eta elektroniko deuseztatze-tasa tasa honek aurrekoaren antzera funtzionatzen du, baina gai elektriko eta elektronikoekin.
- Hondakin arriskutsuak isurtzearen gaineko zerga: zerga hori ezartzeak hondakin horien tratamendu berezia finantzatzeko eta hondakin-mota hori gutxiago sortzeko aukera ematen du. Eskema batzuetan, hondakinak behar bezala tratatu ondoren, itzuli egiten da zenbateko hori.

Ingurumenari eragiten dioten Instalazioen gaineko beste zerga batzuk

Elektrizitatearekin, erregaiekin eta telekomunikazioekin zerikusia duten eta ingurumenean eragiten duten jarduerak eta instalazioak kargatzen dituzte zerga horiek, eta beste edozein zergatan jasotzen ez diren eta beste bitartekoekin barneratuta ez dauden beste zerga batzuekin osatu behar dira.

- Ingurumenari eragiten dioten instalazioen gaineko zerga.
- Ingurumenari eragiten dioten jardueren gaineko zerga.

- Zarata-sorlekuen gaineko zerga: aireportuak, tabernak, etab.
- Paisaia-inpaktuaren gaineko zerga.



Beste esparru batzuetako beste zerga batzuk

Baliabideen –bai berriztagarriak direnen, bai berriztagarriak ez direnen– gehiegizko ustiapena murrizten lagun dezakeen zerga-multzo bat badago. **Baliabideak ateratzearen gaineko** zerga horiek lau multzotan sailkatzen dira:

- Zur-mozketaren gaineko zerga, EAEn garrantzi handia duen sektorea. Zerga horrekin jasotakoa kontrol-sistemak eta ikerketa finantzatzeko erabiltzen da.
- Zuraren gaineko zerga, input produktibo gisa, mozketaren zerga txikiagoa den herrialdeetatik zura ez inportatzeko.
- Harrobietako legarra eta agregakin mineralak ateratzeko zergaz gain, ikatza eta gas naturala ateratzearen gaineko zergak; baliabide horiek desagertzearen kostuak eta zerga horrekin ateratakoea parekatzen laguntzen dute.

Horrez gain, beste zenbait zerga interesgarri ere badaude. Batzuk **orokorrak** dira eta beste batzuk, berriz, **sektore espezifiko**ei zuzendutakoak:

- Ekotasa: turismoaren presioak ingurumenean egiten duen eraginaren kostuan barneratzeko diseinatutako tasa da.
- Pestizida eta ongarrien gaineko zerga: pestizidak eta ongarriak erabiltzeak luraren eta uraren kalitatean duen ingurumen-inpaktua gutxitzeko.
- Ingurumenaren babeserako edo jarduera poluitzaileen gaineko zerga orokorra: poluitzen duten jarduera guztien gaineko izaera orokorreko zerga (ingurumen-zerga); jardunbide kaltegarriak gutxitzeko tasa desberdinak ditu.

Beste administrazio batzuekiko koordinazioa

Ingurumena kaltetzen duten jarduerak gutxitzeko erabili beharreko zerga garrantzitsu batzuk estatu zentralaren esku daude; beraz, beharrezkoa da administrazioen arteko koordinazio eraginkorra, Erreforma Fiskal Berdea osoa eta eraginkorra izan dadin. Jarduerak BEZeant, Gizarte Segurantzari eta zerga berezietan zentratzen dira (prezio-elastikotasun oso baxuko produktuen gainean aplikatuta).

Tasa desberdinak BEZeant

- BEZa kontsumo guztia kargatzen duen zeharkako zerga da, eta ahalmen handia du herritarren kontsumo-jarduera ingurumena babesteko jarraibideetara moldatzeko. Ingurumen-inpaktu desberdina duten produktu eta zerbitzuetan tasa desberdinak aplikatzearekin batera, zein produktu eta zerbitzu diren kaltegarriak finkatzen duten beste neurri eta mekanismo batzuk ere ezarri behar dira (ekoetiketak, ingurumen-deklarazioak, etab.).

Gizarte Segurantzari kontribuzioak

- Bai langileei, bai enpresei, salbuespenak dituzten zergak eta kenketak eskaini behar zaizkie, ingurumenaren aldetik onargarriagoak diren ingurumen-teknologiak edo -jarduerak bideratzeagatik.
- Enpresek ordaindu behar dituzten beste zerga eta karga batzuk horiek neutraltasun fiskalaren esparruan egin beharreko kontribuzioak murrizteko erabili behar dira.

Zerga bereziak

- Ingurumen-tartea hidrokarburoen gaineko zergan: sortzen duen ingurumen-kostu handia barnera dezala eta ingurumeneko inbertsioak finantza ditzala.
- Ingurumen-tartea tabakoaren gaineko zergan; horren ondorioek osasunean dute eragina, eta, beraz, osasun-gastuetan. Horrekin, osasun-inbertsioak finantzatu beharko lirake.
- Ingurumen-tartea alkoholaren gaineko zergan: tabakoaren kasuaren eragin berbera izan dezala.
- Ingurumen-tartea elektrizitatearen gaineko zergan: horren kontsumoa eta jatorria kargatzen ditu, hurrenez hurren, eraginkortasun energetikoa eta gutxiago poluitzen duen ekoizpena bultzatzeko.
- Ingurumen-tartea matrikulazio-zergan: horrekin bildutakoa eragin kaltegarriak arintzeko eta garraio publikoa diruz laguntzeko erabiltzen da.

Zerga-bilketaren eta dibidendu bikoitzaren erabilera

Erreforma Fiskala egiteko garaian, ohikoa da ingurumeneko zerga-sistemaren dibidendu bikoitzaz hitz egitea, etekin bikoitzari dagokionaz alegia:

- Ingurumena eraginkortasun gehiagorekin babestearen ondorioa da bata.
- Beste zerga desitxurataile batzuk murriztearen ondorioa bestea. Ingurumen-zergekin bildutakoaren zati bat erabilia egin behar da hori, eta lanak, inbertsioak eta ekonomiak gora egitea ekartzen du.

Hori dela eta, Erreforma Fiskal Ekologikoa planteatzeko garaian, honako irizpide hauek ere hartu behar dira kontuan:

- Bilketan izandako igoerak beste zerga desitxurataile batzuk murrizteko erabiltzea, neutraltasun fiskalaren printzipioari eustea lortzen baita. Hori, normalean isurpenen (CO, CO₂, NO_x, Sulfuroak), baliabideak ateratzearen, hondakinak sortzen dituzten jardueren eta energiaren gaineko zergekin bildutakoa honako zerga desitxurataileak murrizteko erabiliz gauzatzen da: PFEZ, Gizarte Segurantzari kontribuzioak (normalean enpresenak) eta sozietateen zerga.
- Bildutakoaren zati bat beste figura batzuen bidez (salbuespenak eta kenketak) itzultzeko eskemak, enpresaren lehiakortasunari eraginik ez egiteko eta neutraltasun fiskalaren printzipioari eusteko. Itzultzeko eskema horiek hainbat jardueratarako joera gutxitu eta ingurumenaren aldetik onargarriagoak diren beste batzuk sustatzeko erabil daitezke.
- Bildutakoaren zati bat ingurumena babesteko eta energia aurrezteko proiektuak finantzatzeko erabiltzea. Garrantzi berezia du ingurumen-tartea sartu den zergan; izan ere, zerga 'berdearen' helburua (edo zergen orientazio berdea) kaltegarriak diren jardunbideak murriztea eta kargatutako jardueren edo produktuen ingurumen-kostua barneratzea da. Horregatik, jasotakoa ingurumenean egindako presioaren eraginak zuzentzeko erabili behar da.

2. Etorkizuneko ildoak

2.1. Sarrera

Aurreko ataletatik ateratako ondorioek eta ingurumen-arloko eta haziendako adituen eta kargu publikoen iritziek ingurumen-helburuak dituzten zerga-bitartekoen erabilerari eta eraginkortasunari buruzko hausnarketa zorrotza egiteko aukera ematen dute. Halaber, horrekin guztiarekin, aukera ematen dute lehiakortasunean ahalik eta eragin txikiena eta

ingurumenean eragin nabaria izateko eta ezar daitezkeenak zeintzuk diren ikusteko.

2.2. Egingarritasun handia, lehiakortasunean eragin txikia eta ingurumenean eragin handia duten neurriak

Egungo zergen orientazio berdea

- **Sozietateen zergako kenkariak** (ingurumenarentzat onuragarriak izango diren jarduerak egiteagatik zergaren kuotan kenkariak aplikatzea): oraingo araudian egon badago horrelako kenkari bat, baina, onuragarriagoa izan dadin, alda daiteke, honako alderdi hauek kontuan izanik:
 - Kenkariaren ehunekoak handiagotzea: oraingoak (% 15ekoa) ez du inbertsio horiek egitera bultzatzen. Kenkariaren ehunekoak handiagotzeko, I+G programetan inbertsioak egiteagatik aplikatzen diren kenkari-sistemen antzekoa erabil daiteke (ekitaldiko inbertsioa aurreko bi ekitaldietako batez besteko inbertsioa adinakoa edo txikiagoa bada, % 30eko kenkaria aplikatzen da; eta, batez besteko hori baino handiagoa bada, kenkaria % 50ekoa da).
 - Kenkariaren oinarria zabaltzea, alegia, ingurumena hobetzearekin zerikusia duten eta kenkariak aplikatzeko eskubidea ematen duten inbertsio-aukerak zabaltzea.
 - Lehenagoko inbertsioagatik kenkaria, gainerako kenkariak ez bezala, eskatu beharreko kenkaria da. Hau da, ez da automatikoa, eskatu egin behar da. Komenigarria litzateke kenkari hori aplikatzeko erraztasunak ematea enpresei, dela kenkari-eskubidea ematen duten inbertsioen katalogoa eginez, dela Ingurumen Saila inplikatur, etab.
 - Bestalde, bitarteko horiek kudeatzeak sortzen dituen arazoak daude. Izan ere, egun Haziendako arduradunak ez daude gaituak ingurumen-ikuspegitik egin daitezkeen kenkariak (edo dagozkien bitarteko ekonomikoak) zehazteko. Irtenbide bat zerga-onurak izan ditzaketan jardueren berme-ziurtagiria Ingurumen Sailak ematea litzateke (etxebizitzaren kasuan egiten den bezalaxe). Hori lortzeko beste bide batzuk ere badaude. Adibidez, Britainia Handiko zerga-eskeman kenkariak izateko aukera duten produkzio-jardueren eta produktuen zerrenda dago.
- Ingurumena hobetzeko jardueri lotetsitako aktiboentzat amortizazio azeleratuko sistemak ezartzea: oraingo araudian dagoeneko jasota dago amortizazio-askatasuna

(azelerazio maximoa) enpresa txikietako aktibo finko berrientzat eta ingurumen-hobekuntzarekin zerikusia duten programa jakin batzuei esleitutako aktiboentzat. Baina bigarren kasu horretan onura fiskala eskatu egin behar da. Ez dago, beraz, aukera handiegirik amortizazioak azeleratzeko, baina areago daitezke, ingurumena hobetzearekin zerikusia duten inbertsioetan, enpresei amortizazio-askatasuna erabiltzeko aukera emanez.

Zerga berriak sortzea

- **Ura.** "Uraren Legea" egiteko lanekin koordinatuz, ur-isurketei buruzko zerga sortzea. Euskal Autonomia Erkidegoan ura kudeatzeko ikuspegi integratua kontuan hartzea lortu beharko litzateke.
- **Hondakinak:** ahalik eta hondakin gutxien sortzea izan beharko litzateke filosofia. Horretarako, besteak beste, hondakinak sortzearen gaineko zerga handia jarri beharko litzateke; izan ere, eremu honetan ahalik eta kostu ekonomiko txikiena jasateko, ahalik eta hondakin gutxiena sortzea izan beharko litzateke helburua. Lan-ildo interesgarrietako bat material birziklatuen erabilera sustatzea da, horretarako hainbat tresna ekonomiko erabiliz, hala nola diru-laguntzak, kenkariak, BEZaren tasa murriztuak, etab.. Hiri-hondakin solidoei dagokienez, udal askotan zerbitzu hori defizitarioa izaten da, tasek ez dutelako benetako kostua estaltzen, eta defizitari udalaren aurrekontuek egin behar izaten diote aurre. Horregatik, oso garrantzitsua da sortzen diren hondakinak kudeatzeak dakarren benetako kostua herritarrei jakitera ematea.
- **Baliabideen erauzketa:** Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, baliabideen erauzketa hitz egiten denean, harrobiez hitz egiten da. Ustiapen horiek administrazio-emakidak izaten dira eta, beraz, badago kanon bat aplikatzerik berriztagarriak ez diren baliabideak ustiatzeagatik.
- **Ingurumenaren gaineko zerga:** Ingurumen Sailean enpresen "Ingurumen Adierazpena" egiteko lanean ari dira, enpresa horiek, ingurumenari dagokionez, zein egoeratan dauden urtero jakin ahal izateko. Hori egitea posible balitz, ingurumenaren gaineko zerga integrala diseinatzeak aukera legoke.

Beste Administrazio batzuekiko koordinazioa

- **Zerga bereziak:** produktu batzuetan, prezioa igotzeak ez du eragin handia izaten horien kontsumoan (prezio-elastikotasun txikia). Produktu horiei ezar dakieke zerga hori

2.3. Beste zenbait neurri interesgarri, baina aplikatzeko horren errazak edo horren eraginkorrak ez direnak

Badaude ingurumenean eragin handia izan dezaketen beste neurri batzuk, baina lehiakortasunari eragiten diote, eta horregatik zaila da horiek ezartzea. Besteak beste, honako hauek dira:

Zerga berriak sortzea

- **Instalazioen gaineko zerga:** Tresna hau kontu handiz erabili behar da; izan ere, nabarmen egin diezaioke kalte enpresen lehiakortasunari eta, beraz, enpresak EAetik kanpo kokatzea eragin dezake, batez ere oso handia bada.

- **Ibilgailuen gaineko zerga:** ibilgailua, argi eta garbi, ingurumenari eta osasunari kalte egiten dioten kanpo-faktoreen sortzaile da. Dena den, erregaia, matrikulazioa eta errepideen azpiegitura erabiltzea dagoeneko kargatzen direnez, sortzen dituzten hondakinen gaineko zergak ere jar daitezkeen arren, ibilgailuen gaineko zerga gehiegi dagoelako iritzia dago gizartean. Dena den, ibilgailuek sortzen dituzten eta oraindik kargatzen ez diren kanpo-arazo negatiboak (zirkulazioa, zarata, istripuak, etab.) asko dira eta, beraz, interesgarria izan liteke ibilgailuen gaineko ingurumen-zergaren bat sortzea (edo lehendik dagoen zergaren bat aldatzea).

- **CFC-ak eta halogenoak:** lehiakortasunean ez dute eragin handiegirik, baina horiei zerga jartzea ez da erraza.

- **Atmosferaren poluzioaren gaineko zerga:** lehiakortasunean nolabaiteko eragina izateaz gain, ezartzeko ez dira errazak.

- **Ekotasa:** ingurumen-eraginari dagokionez, ez da aurrekoak bezain interesgarria.

Beste Administrazio batzuekiko koordinazioa

- **BEZ tasa berezituak:** lehiakortasunean, Gizarte Segurantzari egindako kontribuzioak baino eragin txikiagoa izan dezake, eta, gainera, neurri eraginkorra izan daiteke. Baina, neurri horrek EBan zeharkako zergen bateratze-arauek ezarritako mugak ditu aurrez aurre eta, gainera, eskumen arauemaile estatutuarena da.

- **Gizarte Segurantzari kontribuzioak:**

Egungo zergen orientazio berdea

Azkenik, badaude beste neurri batzuk, ingurumenean eragin txikiagoa izanik ere, lehiakortasunean oso eragin txikia dutelako kontuan hartu behar direnak. Lehendik dauden zergak dira, baina orientazio ekologikoa ematen zaienak:

- **Udal-zergetan ingurumen-tarte bat sartzea.**

- **PFEZaren kuotako (edo oinarriko) kenkariak.** PFEZaren murriztapenak dira, ingurumenari dagokionez, eraginkortasun txikienekoak.

2.4. Koordinazioa eta hurrengo urratsak

Etorkizuneko jarduera-ildoei dagokienez, argi dago **lan-talde iraunkor bat** (eta/edo erakundeen barruko eta kanpoko beste lankidetzara batzuk) egituratu beharra dagoela. Lan-talde hori **Ingurumen, Hazienda eta Ekonomia** Saitetako arduradunek osatu beharko lukete, eta bilerak maiz egin beharko lituzkete beharrezko neurri fiskalak diseinatzeko. Neurri horiek, Garapen Jasangarrirako EAEko 2002-2020ko Ingurumen Estrategiak diotenaren arabera, EAEn ingurumenari dagokionez lehentasuna dutenak izan behar dute.

Gainera, Erreformaren oinarri izango diren **printzipioak** argi definitu behar dira, eta, horretarako, argi identifikatu behar dira ingurumena hobetzeko eta berreskuratzeko kostuak ordaintzeko diseinatutako bitartekoak eta atzera eginarazteko edo kontsumo- eta ekoizpen-arauek aldatzeko diseinatutakoak. Baina, dena den, beste zerga batzuetan presio fiskala murrizteko baliabide libreak izatea da kontua; bestela, ez baikenuke egingo normalean Erreforma Fiskal Berdea izena hartzen duena.

Hori dela eta, bitarteko fiskalak, ingurumenean eragiteko helburua duen politika ekonomikorako tresna gisa, hobeto definitzeko, lortu nahi diren ingurumen-**helburuak** hasiera-hasieratik **argi definitzea** beharrekoa da. Ondoren, bitarteko egokienak aukeratu behar dira, espero diren emaitzen arteko kostua/etekina, horiek lortzeko behar diren giza eta ekonomia-baliabideen ahalegina eta errentan eta enpleguan duten eragina kontuan hartuta.

Helburuen definizioan, gainera, Europako azken joerak jaso behar dira. Joera horien artean, garraioaren eta energiaren eremuko kargak daude, eta bi horiek dira gaur egun gehien poluitzen dutenak.

Gainera, diseinuaren fasean beharrezkoa da martxan jarri nahi diren neurrien ingurumen- eta ekonomia-**inpaktuak aztertzea**, eta horiek etorkizunean egingo diren bitarteko **ebaluzioetan** pentsatuta diseinatzea. Eta, batez ere, dibidendu bikoitzaren abantailak baliatuko dituen erreforma

fiskal berde bat sortu nahi bada (ingurumen- eta ekonomia- dibidendua, bildutakoarekin finantzaturako beste zerga desitxuratzailerik batzuk murrizteko bide gisa). Jakina, beharrezkoa da, martxan jarri ondoren, bitarteko horiek aldi-aldi ebaluatzea. Horretarako, garrantzi berezia du inpaktuak **neurtzeko metodologiak** aztertzea.

Azkenik, Europako Ingurumen Agentziaren gomendioak kontuan hartuta, funtsezkoa da bitarteko fiskalak sortuko direla garaiz eta eraginkortasunez iragartzea, industria eta kontsumitzaileak horietara ohitu edo egoki daitezela. Proposatutako neurriak pixkanaka-pixkanaka ezarri behar direla kontuan hartu behar da prozesuan, prozesu horren eragile guztiak behar bezala egoki daitezela.

Edonola ere, Euskadiko lehen Erreforma Fiskal Berdea izango litzatekeena ez da hartu behar helburu soil gisa bakarrik, baizik eta EAEko ingurumen-politika **ikuspegi integraletik** lagunduko duen jardueraren gisa.



BIBLIOGRAFIA

- Suediako Ingurumen Agentzia (1999), "Environmental Taxes in Sweden", Stockholm.
- Duran, J.M. eta Gispert, C. (2002); "Fiscalidad Medioambiental sobre la Energía: Propuestas para España". IX Jornadas de Economía Pública, mimeo.
- EIA (2000), "Environmental Taxes: Recent Developments in Tools for Integration", http://reports.eea.eu.int:90/Environmental_Issues_No_18/
- EIM (1999), "Study of the EU wide Framework for Environmental Levies on Pesticides", Zotermeer.
- Eurostat (2000), "Environmental Taxes in the EU", Statistics in Focus Theme 2-20/2000.
- Gago, A., Labandeira, X. eta Rodriguez, M. (2002); "Imposición Ambiental y Reforma Fiscal Verde: tendencias recientes y análisis de propuestas". IX Jornadas de Economía Pública, mimeo.
- Danimarkako gobernua (1999), "Evaluation of Green Taxes and Trade Industry", www.skm.dk/sgk-skmgl1.htm
- INFRAS/IWW (2000), "External Costs of Transport – Accidents, Environmental and Congestion Costs of Transport in Western Europe", Zurich/Karlsruhe.
- Markandya, A (1993), "Environmental Taxation: A Review of OECD Country Experience and Prospects for Economies in Transition", Development Discussion Paper, No. 471. Harvard Institute of International Development.
- Monasterio, C. (1997); "La fiscalidad Autonómica". *Ekonomiaz*, 38/97.
- ELGE (1999), "Economic Instruments for Pollution Control and Natural Resources Management in OECD Countries: A Survey".
- ELGE (2001), "Environmentally Related Taxes in OECD Countries: Issues and Strategies".
- UK Department for the Environment, Transport and the Regions (DETR) (1999), "The Governments Response to the Environment, Transport and Regional Affairs Committee Report: The Operation of the Landfill Tax.
- Van Wee, B. (1995), "Pricing Instruments for Transport Policy", "Environment, Incentives and the Common Market"-en, Dietz eta beste hainbatek argitaratua, Kluwer Academic Publishers.
- US Environmental Protection Agency (2001), "The US Experience with Economic Incentives for Protecting the Environment", EPA-240-R-01-001. www.epa.gov/economics.

Eranskina:

- **Erreforma Fiskal Berdeak** Europan
- **Ingurumenari lotutako Zergak** Estatuan
- **EAEen Zerga erreforma** Ekologikoa egiteko Iradokizunak



I. ERANSKINA:

Erreforma Fiskal Berdeak Europan

ZERGAK				
Herraldea	Urtea(k)	Erreforma		Guztizko diru-sarreretatik transferitutakoen ehunekoa
		Lehen	Orain	
Suedia	1990-91	<ul style="list-style-type: none"> • Errentaren gaineko zerga (% 4.3ko murrizketa) 	<ul style="list-style-type: none"> • Energiaren gaineko ingurumen zerga (CO₂, SO₂ barne) 	1.9
	2001	<ul style="list-style-type: none"> • Errentaren gaineko zerga • Gizarte Segurantzari kontribuzioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Gasolioaren gaineko zerga handitzea • Berogailuetako petrolioaren gaineko zerga handitzea • Elektrizitatearen gaineko zerga handitzea 	
Belgika	1993	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Segurantzari kontribuzioak (enpresak) 	<ul style="list-style-type: none"> • Energiaren erabilera pribatuaren gaineko zerga 	daturik ez
Danimarka	1992-93, 1995, 1998	<ul style="list-style-type: none"> • Errentaren gaineko zerga • Gizarte Segurantzari kontribuzioak (enpresak) • Inbertsioetarako pizgarriak 	<ul style="list-style-type: none"> • Elektrizitatearen gaineko zergak • Ura • Hondakinak • Ibilgailuak • CO₂-aren isurpenak • SO₂-aren isurpenak 	2.5
Herbehereak	1988		<ul style="list-style-type: none"> • Ingurumen-zergak • Erregaien gaineko zerga orokorra 	0.8
	1995-96	<ul style="list-style-type: none"> • Errenta-zerga • Sozietateen zerga • Gizarte Segurantzari kontribuzioak (enpresak) 	<ul style="list-style-type: none"> • Energiaren gaineko zergak • CO₂-aren gaineko zergak 	
	2000	Erreforma Fiskalerako Batzordea hautatu zen 2001ean Erreforma Fiskal Berdea diseinatzeko		
Finlandia	1997	<ul style="list-style-type: none"> • Errenta-zerga • Gizarte Segurantzari kontribuzioak (enpresak) 	<ul style="list-style-type: none"> • CO₂ • Isurpenak 	0.5
Italia	1998-99	<ul style="list-style-type: none"> • %60.5eko diru-sarrera Gizarte Segurantzari kontribuzioak ordaintzeko (enpresak) • %31.5 neurri konpentsatzaileak 	<ul style="list-style-type: none"> • Erregai mineraletarako CO₂ • Petrolioaren prezioak igotzeak erreforma atzeratu zuen. 	0.2
Alemania	1999-2000	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Segurantzari kontribuzioak (enpresak eta langileak) 	<ul style="list-style-type: none"> • Energia: • Petrolio minerala • Gas naturala • Elektrizitatea 	0.8
Frantzia	1999	<ul style="list-style-type: none"> • Lanaren gaineko zerga • Asteko 35 lanorduko legedia ezartzen duten enpresei laguntza <p>Neurri osagarriak proposatu ziren, isurpen-kredituen sistema eta salbuespenak esaterako, baina Auzitegi Konstituzionalak Konstituzioaren aurkakotzat hartu zituen 2000n</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Jarduera kutsagarrien gaineko zerga orokorra (TGAP) (erregai fosilak eta elektrizitatea barne) 	daturik ez
Suitza	1999-2000	<ul style="list-style-type: none"> • Mediku-aseguruari kontribuzioak 	<ul style="list-style-type: none"> • Partikula esekien gaineko zergak (VOC) • Gasolinatan egindako sufre-isurpenen gaineko zerga 	daturik ez
Erresuma Batua	1996	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Segurantzari kontribuzioak 	<ul style="list-style-type: none"> • Zabortegi-tasa 	daturik ez
	2001	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Segurantzari kontribuzioak (enpresak): %0.3 	<ul style="list-style-type: none"> • Klima-aldaketaren zerga: industriako erabilera energetikoen gaineko zerga da. 	
	2002	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Segurantzari kontribuzioak (enpresak) 	<ul style="list-style-type: none"> • Guztizko zerga (aggregate tax) (2002/03an ezarriko da). Harea-, legar- eta haitz-erabileraren gaineko zerga barne. 	



II. ERANSKINA:

Ingurumenari lotutako Zergak Estatuan

ZERGAK

Bitartekoa	Zergatia Helburua	Maila	Zerga-oinarria	Zerga-tasa	Bildutakoaren erabilera	Salbuespenak		
Erregaiak	Zeharkako zerga	Zerga-bilketa	Estatua	Berundun gasolina	0,40 €/kl	Aurrekontu orokorrak	Gasolinen guztizko kontsumoan berunik gabeko gasolinen parte-hartzea % 46koa da	
	Zeharkako zerga	Zerga-bilketa	Estatua	Berunik gabeko gasolina	0,37 €/kl	Aurrekontu orokorrak		
	Zeharkako zerga	Zerga-bilketa	Estatua	Diesela/Gasolioa	0,20 €/kl	Aurrekontu orokorrak		
	Zeharkako zerga	Zerga-bilketa	Estatua	Petrolioaren Gas Likidoak (PGL)	0,79 €/t	Aurrekontu orokorrak		
	Zeharkako zerga	Zerga-bilketa	Estatua	Kerosenoa	0,29 €/kl	Aurrekontu orokorrak		
	BEZa	Zerga-bilketa	Estatua*	Motordun ibilgailuentzako erregaiak	% 16	Aurrekontu orokorrak		Garraio publikoa, % 7ko tasa murriztua
	Sulfuro-isurpenak	Kostua sustatu eta barneratu	Autonomia Erkidegoak					Galiziak 1995ean ezarri zuen isurpenen gaineko zerga
	NO _x -aren isurpenak		Autonomia Erkidegoak					Galiziak 1995ean ezarri zuen NO _x -aren isurpenen gaineko zerga
Beste energia	Zeharkako zerga	Zerga-bilketa	Estatua	Gasolioa (industrian eta merkataritzan erabiltzeko)	0,07 €/kl	Aurrekontu orokorrak	Zergak % 2,1 igo ziren 1998an	
	Zeharkako zerga	Zerga-bilketa	Estatua	Berogailuetarako gasolioa	0,07 €/kl			
	Zeharkako zerga	Zerga-bilketa	Estatua	Gasolio astuna	0,01 €/t			
	Zeharkako zerga	Zerga-bilketa	Estatua	Petrolioaren Gas Likidotuak (PGL) (industrian eta merkataritzan erabiltzeko)	0,05 €/t			
	Zeharkako zerga	Zerga-bilketa	Estatua	PGL (berogailuetarako)	0 €/t			
	Zeharkako zerga	Zerga-bilketa	Estatua	Keroseno (industrian eta merkataritzan erabiltzeko)	0,29 €/kl			
	Zeharkako zerga	Zerga-bilketa	Estatua	Kerosenoa (berogailuetarako)	0,14 €/kl			
	Zeharkako zerga	Zerga-bilketa	Estatua	Gas naturala	0 €/m ³			
	Zeharkako zerga	Zerga-bilketa	Estatua	Elektrizitatea	0 €/kwh			
	BEZa	Zerga-bilketa	Estatua*	Beste energia batzuk	% 16	Aurrekontu orokorrak		
Sulfuro isurpenak	Sustatzea	Autonomia Erkidegoak	Energiak	SO ₂ eta NO _x isurpenen arabera: 0-1,000 t/urtean: 0 €/t • 1,001-50,000 t/urtean: 30,05 €/t • 50,001 t/urtean baino gehiago 33,06 €/t	Ingurumena babesteko jarduerak	Galiziak 1995ean ezarri zuen NO _x eta SO ₂ -ren gaineko zerga; isurpen-muga gaitzitzen duten industriak zigortu egiten dira		

ZERGAK

Bitartekoa	Zergatia Helburua	Maila	Zerga-oinarria	Zerga-tasa	Bildutakoaren erabilera	Salbuespenak	
Ibilgailuak	Zirkulazio-zerga edo trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga	Zerga-bilketa	Udalerrria	Zilindro-bolumenaren (motozikletak), pisuaren (kamioiak eta karabanak) eta potentziaren (ibilgailuak) arabera	Udalaren arabera: -Motozikletak (125-250 cc) 7,57 €; (>1.000 cc): 60,58 €. -Ibilgailuak: (8-12 ZP) 34,07 €; (12-16 ZP): 71,94 €.		Estatuko ibilgailu ofizialak, anbulantziak eta nekazaritza-makineria salbuesita daude
	Matrikulazio-zergak	Zerga-bilketa	Estatua	Ad valorem zerga	Erabilera pribatuko ibilgailuak: 1.600cc< zilindro-bolumeneko diezeletan % 12 1.600cc> zilindro-bolumeneko diezeletan % 7 Itsasontzi eta hegazkinak: 7,5 m baino luzeagoentzat % 12		Enpresetako ibilgailuetan, armadakoetan, autobusetan eta anbulantziatan salbuespenak daude
	Konpainiaren autoak (enpresa)	Zerga-bilketa	Estatua		Ezin dira kendu; langileentzako ibilgailuek autoaren balioaren % 15 daukate		
Zuzeneko zergen gaineko hornidura	Inbertsioak				1) Kenketak ingurumenaren babeserako inbertsioengatik 2) Teknologia garbieten inbertitzeko diru-laguntzak 3) Nekazaritzako sektorearentzako laguntza-programak 4) Industria-olioen tratamendurako edo birziklitzeko instalazioetarako diru-laguntzak	1) Jardueren ingurumen-inpaktua gutxitzea 2)Aurrekontuaren % 15-100 bitartean 3) Arriskuan dauden espezieak babestea, ohitura ekologikoak hartzea 4) Olio prozesatua, 0,084 €/kg; erregaitarako berreskuratutako olioak, 0,030 €/kg; olio erraustua, 0,027 €/kg	Espainiako Gobernuak 1997an onartu zuen mozkin fiskalen programa
	Pestizidak		Estatua*				% 7ko BEZ murriztua
	Ongarriak		Estatua*				% 7ko BEZ murriztua
	Erabili eta botatzeko ontziak	Gordailuak itzultzeko eskema	Estatua	Olio erabiliak	Ontzietarako gordailuak itzultzeko eskema		
Beste batzuk	Olio lubrifikatzailak	Produktuaren gaineko zergak			0,036 € /olio kg	Ingurumenari lotutako ekintzetarako finantziakzioa Autonomia Erkidegoan	Olio erabiliei dagokien legea onartu zuen Ministroen Kontseiluak 1995ean Nazio mailako lehen zerga
	Instalazioak (zeharkako zerga)		Autonomia Erkidegoak	Ingurumena kaltetzen duten instalazioen gaineko zerga (Balear Uharteak)	Elektrizitatearekin, erregaiekin eta telekomunikazioekin zerikusia duten jarduerak (ekoizpena, transformazioa, garraioa, banaketa, etab.) zergapean; jardueraren BEGen % 1		Balearretako Gobernuaren 1991eko legea
Beste batzuk	Turismo (ekotasa)		Autonomia Erkidegoak	Turista asko biltzen diren guneak	Balear Uharteetan turismoan ekotasa ezartzea aztergai; 0,25etik 2 eurora bitartean pertsonako eta gaueko	Parke naturalen eta kostaldean mantentze-lana	turismo ugariaren eragina ingurumenean

ZERGAK

	Bitartekoa	Zergatia Helburua	Maila	Zerga-oinarria	Zerga-tasa	Bildutakoaren erabilera	Salbuespenak
Hondakinak	Zabor-bilketako tasa	Gastuak kitatzea	Udalerrria	Zabor-bilketako udal-tasa Hondakin bilketa	Bilketa-bolumenaren (pisua), motaren eta maiztasunaren arabera kostua 15-30€/t da		% 7ko BEZ murriztua hondakinaren tratamendurako zerbitzuei Hiri-hondakin solidoen % 15 legez kanpo jasotzen direla kalkulatzeko da
Ura	Ur-kontsumoaren gaineko tasa	Gastuak kitatzea	Udalerrria	Edateko ura Industria	Ur-kontsumoaren (m3) arabera: Industrian (0,10 €/m3), etxean (0,10 €/m3) Ureztaketa-urean ez dago sartuta Hainbat tarifa daude; mantentze- eta eragiketa-lanen kostua berreskuratzea da helburua; industrien isurtzen duten ura tasatzen da poluitzaile proportzioaren arabera		Udalerrriak arduratzen dira edateko ura banatzeaz Gutzizko kostuen berreskuratze printzipioa ezin da aplikatu Azpiegituretarako dirulaguntzak, baina ez estolderiarako
	Ur-baliabideen erabilera-tasa	Gastuak kitatzea	Autonomia Erkidegoak	Erabilera-tasa	Baliabide publikoak energia sortzeko eta antzeko jardueretarako erabiltzea eta kirol-erabilera kargatzen ditu Baliabidearen erabilera baloratzen du; zerga karga dakioken oinarriaren % 4	Urarekin zerikusia duten Administrazioaren programak	
	Ur fekalen tratamendua (estolderia-tasa)	Gastuak kitatzea	Udalerrria	Zeharkako isurpenak	Industria-hondakinak eta etxeetakoak estolderia-sistemara isurtzea; ez dago jarraibide uniformerik tasa kalkulatzeko, ur-kontsumoaren arabera egitea da ohikoena	Tratamendu-azpiegiturek finantzatzea	Tratamendu-planten eraikuntza Gobernuak finantzatzen du, funtzionamendua zerga-bilketarekin egiten da
	Isurpen-kanona	Gastuak kitatzea	Autonomia Erkidegoak	lur gaineko uretan zuzenean eginiko isurpenak	Ordainketa zer eta zenbat isuri den arabera egiten da, eta etxeko hondakinei ezin zaie aplikatu	Tratamendu-plantak finantzatzea; uretako ekosistemaren babesa eta tratamendua	Tasa aldatu egiten da dagokion erakundeak antzemandako beharren arabera



ZERGAK

Bitartekoa	Zergatia Helburua	Maila	Zerga-oinarria	Zerga-tasa	Bildutakoaren erabilera	Salbuespenak
Hondakin-uren arazketa	Gastuak kitatzea	Autonomia Erkidegoak	Erabilera-tasa	kontsumitutako uraren bolumenean oinarritua Ura prozesatu egin behar da izaera naturala berreskura dezan		Autonomia Erkidego bakoitzak erabakitzen ditu; ura aurreztea bultzatzen da
Ur-bilketa	Gastuak kitatzea	Autonomia Erkidegoak		Baimena izanez gero, zerga bildutako bolumenaren araberakoa da; ureztatzea: 0,06 €/m ³ ; konpainia hidroelektrikoak: 0,01 €/100m ³		Hondakin-urak tratatu eta berreskuratzeko Plan Nazionalaren parte da
Ura	Isurpenak kostaldeko uretan	Autonomia Erkidegoak	Isurpen-tasak	Isuritakoaren poluitzaile proportzioaren arabera	Uraren kalitatea hobetzeko programak finantzatzeko	22/1998 Legeak araututa
	Kontinenteko uretan isurtzea	Autonomia Erkidegoak	Isurpen-tasak	Balorea uraren kalitatea berreskuratzeko egin beharreko inbertsioetarako Plan Hidrologikoak eskatzen duenaren arabera da	Uraren kalitatea hobetzeko programak finantzatzeko	29/85 legeak eta 849/86 errege-dekretuak araututa
	Kostaldeko baliabideak erabili eta ustiatzeko emakidak	Autonomia Erkidegoak	Erabilera-tasa	Kostaldearen okupazio eta ustiatze guztiak zerga batekin kargatuko dira		22/1998 Legeak araututa



III. ERANSKINA:

EAEn Zerga Erreforma Ekologikoa Egiteko Iradokizunak

1. Egungo zergen orientazio berdea

1.1. Sozietateen zerga (EZ)

1. neurria: Errenta aldagarria lortzeko laguntza ingurumena babesteko, energia aurrezteko eta abarretarako teknologia duten enpresetan.

1. Berariazko zerga-kenketak kuotan (edo oinarrian) egindako inbertsioaren arabera
2. Berariazko zerga-kenketak kuotan (edo oinarrian) errenta aldagarri gehiago eskuratzearren
3. Berariazko zerga-kenketak kuotan (edo oinarrian), enpresa "berdeetan" inbertitzeagatik galerak izanez gero (edo galerak gehituz gero)

2. neurria: Ingurumena babesteko eta energia aurrezteko gastuan (inbertsioan) laguntza

4. Kenketak kuotan (edo oinarrian) gastua handitzeagatik

3. neurria: Erreserba berezien sorrera, ingurumena babestu eta energia aurrezteko inbertsioetarako

5. Kenketak aurreratzea
6. Aurrerapen bereziak PYME-entzat
7. Berariazko kenketak zerga-oinarrian mozkinak berriz inbertitzeko

4. neurria: Amortizazio bizkortuko eskemak ingurumena babesteko eta energia aurrezteko inbertsioak sustatzeko

8. Amortizazio bizkortuko eskemak ingurumena babesten eta energia aurrezten berriz inbertitzeagatik

5. neurria: Teknologia garbietan inbertitzeko emandako diru-laguntzen gaineko zergen eraginari aurre egiteko eskemak

Deskribapena

9. Kenketak kuotan (edo oinarrian) diru-laguntza edo bestelako laguntza moduan lortutako errentetan

6. neurria: Royaltyak eta patenteak sustatzeko eskemak ingurumena babesteko eta energia aurrezteko teknologietan

10. Kenketak kuotan (edo oinarrian) patenteak aurkezteagatik
11. Kenketak kuotan (edo oinarrian) patenteengatik jasotako errenten gainean

1.2. PFEZ (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga)

7. neurria: Kenketak errenta aldagarria eskuratzegatik, ingurumena babesteko teknologia duten enpresetan edo horietan inbertitzen dutenetan

12. Berariazko zerga-kenketak kuotan (edo oinarrian,) egindako inbertsioaren arabera eta inbertsioa handitzeagatik
13. Kenketak kuotan ingurumena babesteko eta energia aurrezteko teknologiak dituzten enpresetan inbertitzeagatik galerak izanez gero (edo galerak gehituz gero)

8. neurria: Kenketak mozkinak berriz inbertitzeagatik

14. Berariazko kenketak kuotan (edo oinarrian) mozkinak berriz inbertitzeagatik (inbertsioak handitzeagatik) jarduera "berdeetan"

9. neurria: Ingurumenaren babesari lotutako gaietan graduondoko ikastaroak egiteko laguntza-eskemak

15. Kenketak kuotan (oinarrian) Ingurumenari lotutako graduondoko ikasketetan egindako gastuengatik (gastuak handitzeagatik)
- Ikastaroek eragindako gastuen zati bat (edo gastuen handitzea) kentzean datza Ingurumenari lotutako gaietan trebakuntza sustatzeko. Sentsibilizazioan eragin handia du neurri honek.
16. Kenketak kuotan (oinarrian) diru-laguntzen gaineko zergen eragina arintzeko

10. neurria: Royalty eta patenteak aurkezteko laguntza-eskemak

17. Kenketak kuotan (oinarrian) patente eta copy-right-ak aurkezteagatik jasotako errentetarako

11. neurria: Laguntza-eskemak EAeko zentroetan ingurumenaren babesari eta energia aurrezteari lotutako gaietan diharduten nazioarteko ikertzaile ospetsuak sartzeko

18. Kenketak kuotan (oinarrian) EAEn diharduten ikertzaile atzerritarrentzat
19. Opor fiskalak ikertzaile atzerritarrek EAEn egonaldiak egin ditzaten

1.3. Beste zerga batzuk

12. neurria: Egungo zerga-bilketa gehitzea Ingurumenaren Aldagaia sartzeko (Udal mailan eta Erkidego mailan)

20. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga gehitzea Ingurumena kontuan hartzeko
21. Ingurumenaren aldagaia sartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan
22. Ingurumenaren aldagaia sartzea ehiza eta arrantzako barruti pribatuen luxuzko gastuen gaineko zergan
23. Zabor bilketako tasa gehitzea Ingurumena kontuan hartzeko

2. Zerga berrien sorrera

2.1. Urari lotutako zergak

2.2. Poluzio atmosferikoari lotutako zergak

- (a) Sulfuroa isurtzearen gaineko zerga
- (b) NO₂-a isurtzearen gaineko zerga
- (c) CO₂ eta CO-a isurtzearen gaineko zerga
- (d) Ibilgailuen ingurumen-inpaktuaren gaineko zerga
- (e) CFC-ak eta Halogenoak

2.3. Hondakinen sorrerari lotutako zergak

- (f) Industria-hondakin solidoak isurtzearen gaineko zerga
- (g) Hiri-hondakin solidoak isurtzearen gaineko zerga
- (h) Zabor-poltsa ofizialen eskema
- (i) Birziklapen-tasa
- (j) Baterien gaineko zerga
- (k) Plastikozko poltsak
- (l) Pneumatikoen gaineko zerga
- (m) Ibilgailuen desegite-tasa
- (n) Aparailu elektriko eta elektronikoen deuseztatze-tasa
- (o) Hondakin arriskutsuak isurtzearen gaineko zerga

2.4. Ingurumenari eragiten dioten instalazioen gaineko zergak

- (p) Ingurumenari eragiten dioten instalazioen gaineko zerga
- (q) Ingurumenari eragiten dioten jardueren gaineko zerga
- (r) Zarata sorlekuen gaineko zerga
- (s) Paisaia-inpaktuaren gaineko zerga

2.5. Baliabideak eraztearen gaineko zergak

- (t) Egurra moztearen gaineko zerga
- (u) Produkzio-input gisako egurraren gaineko zerga
- (v) Gas naturala eraztearen gaineko zerga
- (w) Beste baliabide batzuk eraztearen gaineko zergak

2.6. Beste batzuk

- (x) Ekotasa
- (y) Pestizida eta ongarrrien gaineko zerga
- (z) Hiriguneko erdialdean eta/edo auto asko pilatzen den guneeetan ibilgailuen trafikoaren gaineko zerga
- (aa) Errepide/autobideak erabiltzearen gaineko zerga edo tasa
- (bb) Ingurumena babesteko edo jarduera poluitzaileen gaineko zerga orokorra

3. Estatuari iradokizunak aurkeztu

3.1. Balio erantsiaren gaineko zergan (BEZ) tasa ezberdinak

3.2. Gizarte Segurantzari kontribuzioak

- (I) Salbuespenak eta kenkariak
- (II) Zerga-bilketa desbideratzea kontribuzioak gutxitzeko

3.3. Zerga bereziak

- (III) Ingurumen-tartea hidrokarburoen gaineko zergan
- (IV) Ingurumen-tartea tabakoaren gaineko zergan
- (V) Ingurumen-tartea alkoholaren gaineko zergan
- (VI) Ingurumen-tartea elektrizitatearen gaineko zergan
- (VII) Ingurumen-tartea matrikulazio-zergan

4. Zerga-bilketaren eta dibidendu bikoitzaren erabilera

- (I) Beste zerga eraldagarri batzuk murriztu:
 - PFEZ
 - Gizarte Segurantzari kontribuzioak
 - EI

- (II) Itzultze-eskemak

- (III) Zerga-bilketaren zati bat proiektuak finantzatzeko erabili